

# *Ilunpetan*

Komedia beltz-beltz-beltza

Peter Shaffer

Obra hau 2008ko urriaren 31n estreinatu da,  
Zornotzako Antzokian.

Talde ekoizlea:  
Zuzendaria:  
Euskaratzea / Zuzendari laguntzailea:

Kanpingags  
Lander Iglesias  
Julia Marin

## **PERTSONAIAK / AKTOREAK**

Agertzen diren ordenan

BERNAT MILLA	ASIER HORMAZA edo ALFONSO DIEZ	2. or.
CAROL MURUA	ITZIAR ITUÑO	2. or.
FORURIA ANDEREÑO	KLARA BADIOLA	7. or.
MURUA KAPITAINA	ISIDORO FERNANDEZ	10. or.
ARNALDO CALONGE	RAMON IBARRA	16. or.
CERES	AINHOA GARAI	31. or.
JORGE RAFAEL MAYO	ASIER SOTA	39. or.
JORGE RAGNER	FEDE BADIOLA	56. or.

### **HIZKUNTZ IRIZPIDEAK**

BERNAT MILLA	bilbotarra	batuan	(Y)
CAROL MURUA	bilbotarra	bizkaieraz	(Y)
FORURIA ANDEREÑO	serora gipuzkoarra	gipuzkeraz	(J)
MURUA KAPITAINA	bilbotarra	batuan	(J)
ARNALDO CALONGE	bilbotarra	batuan	(J)
CERES	arrasatearra	bizkaieraz + kubatar azentua (Rosario)	(J)
JORGE RAFAEL MAYO	argentinarra	euskaldun berria + argentinar azentua	(Y)
JORGE RAGNER	argentinarra	euskaldun berria + argentinar azentua	(Y)

BERNAT- Gustatzen zaizu nola geratu den egongela?

CAROL- (*Poz-pozik*) Ai, bai, asko! Holan egon biharko leuke beti. Ai, lanpara hori, ze polite! Eta aulkiak... zoragarriek! Esan neutsun: kolore honek ondo ematen dau edozein lekutan.

BERNAT- (*Kezkaturik*) Bai... bai... baina imajinatu Arnaldo agertzen dela orain.

CAROL- Ez da ailegauko bihar goizera arte, ezta?

BERNAT- (*Urduri*) Bai, baina Arnaldorekin ez dago sekula jakiterik. Halako batean faltan izango ditu igual bere... artelanak.

CAROL- Bai, ta horregatik bakarrik etorriko da.

BERNAT- Bueno, horregatik edo... (*Lehengo idejara bueltatuz*) Etxean sartu eta egongela erabat garbitu diogula ikusten duenean, jo ta txikitu egingo nau.

CAROL- Bai! Lau tontakeri bakarrik hartu deutsaguz-ta: sofa hau, aulkiek, lanpara eta loreontzie loreekaz. Hori baino ez.

BERNAT- Eta Buda. Buda hori da Arnaldoren piezarik kuttunena. Aita gogorarazten omen dio.

CAROL- Ez larritu, laztantsu, egoan lekuan itxiko dogu dana Ragner jauna hamendik joan ostean.

BERNAT- Ez dugu zuzen jokatu. Arnaldok ikaragarri maite nau. Kriston zerrikeria egin diot.

CAROL- Lasai, laztana. Politt-politte dao dana. Eta horrek inporta dau.

BERNAT- Maitia, Jorge Ragner jauna oso aberatsa da: ohituta dago horrelako altzariak izaten inguruan, edo hobeak. Guk lapurtu ditugun huskeria hauek ez dute batere harrituko. Gainera, nire lana eta ni ezagutzera dator. Hobe luke benetan zer naizen konturatuko balitz: eskultore pobrea eta ezezaguna. Eta hala, igual nire arima bohemioaz errukitu eta eskulturaren bat erosiko dit.

CAROL- Igual bai. Baina zure arima bohemioak jai deko nire aitagaz. Ta ez ahiztu bera ere etortekoa dala.

BERNAT- Ez aipatu! Fosil hori gonbidatzea ere!

CAROL- Ez hasi barriro be!

BERNAT- Hildakoak ere aspertzen ditu-ta. Izugarri maite du diziplina militarra. Eta nik ez nuen soldadutza egin alargunaren semea nintzelako. Millonario ospetsu batek nire eskultura ospetsu bat erosita ere, ez naiz bat-batean zure aitarentzat suhi perfektua bihurtuko. Hori garbi dago.

CAROL- Ez, laztana. Aitak bakarrik jakin gura dau ea kapaz zaren zure beharragaz bizimodue atarateko.

BERNAT- Eta zer gertatuko da Ragnerri nire eskulturak gustatzen ez bazaizkio?

CAROL- Gustoko jakoz. Lasai egon.

BERNAT- Ezin. Ekarridazu whisky bat eta jaitsi musika. Susmo txarra daukat: ekaitza dator. Okerrago. Tifoi bat, tsunami bat oso-osorik irentsiko gaituena.

CAROL- Animo, laztana! Koldarrek ez dabe gerrarik irabazten.

BERNAT- Ezta beharrik ere!

CAROL- Aitak arrazoia deko: oso ezkorra zara.

BERNAT- Ez zure aita berriro aipatu, mesedez! Zorabiatzen ari naiz-eta. Amesgaiztoak izaten ditut berarekin! Atzetik segika ibiltzen zait, txano eta bizarrarekin, arpoia eskuan duela, ni atun bat banintz bezala, Pescanova kapitaina ematen du. Eskerrak ez nauen sekula harrapatzen. Garaiz esnatzen naiz beti. Baina seguru nago: ez nau batere gogoko.

CAROL- Baie, zergattik?

BERNAT- Koldar hutsa naizelako. Eta berehala konturatuko da.

CAROL- Aittu, laztana. Zuk gauza bakarra in bi ozu: haren ganetik ipini. Aita harrotuten da bakarrik arerioa ahula danean.

BERNAT- Ba, nik bera oso-oso indartsu sentitzen dut.

CAROL- Baie, ez dozu ezetuten-da!

BERNAT- Eta zer? Susmatu egiten dut.

CAROL- Ez esan lerdokeririk! Aber, zer egin ahal dau zure kontra?

BERNAT- Ba, adibidez, oztopoak jarri gu biok ezkon gaitezen.

CAROL- Ai, Berni, laztana, zelango gauza politte esan dozun ontxe bertan!  
(*Elkar besarkatzen dute*)

BERNAT- Ederra zaude fuksiaz jantzita. Tonu honek ilearen kolorea nabarmentzen dizu.

CAROL- Lotu alkondarie, potxolo: Riky Martin emoten dozu-ta!

BERNAT- Eta zuk Olinpotik eroritako venusa.

CAROL- Olinpotik eroritako, zer?

BERNAT- Jainkosa ezin ederragoa!

CAROL- Benetan?

BERNAT- Hil dadila zure aita gezurra esan badizut.

CAROL- (*Barrez*) Pagaue! Bueno eta zuk... zenbet "jainkosa ezin ederrago" ezetu dozuz?

BERNAT- (*Barrez*) Milaka.

CAROL- Ez, benetan.

BERNAT- Ba, benetan, bat ere ez.

CAROL- Eta argazkiko neskea, ze?

BERNAT- Apenas ezagutu nuen. Hiru hilabete bakarrik iraun zuen.

CAROL- Noiz izan zan?

BERNAT- Duela bi urte.

CAROL- Zelan eukan izena?

BERNAT- Ceres.

CAROL- Zelangoa zan?

BERNAT- Ba... pintorea zen. Oso zintzoa eta oso bizkorra. Eta espartzua bezain leuna.

CAROL- Noiz ikusi zenduan azkenekoz?

BERNAT- (*Iheskor*) Esan dizut... duela bi urte.

CAROL- Orduen, zergattik gordetan dozu oindiño haren argazkie mesanotxean?

BERNAT- Ba... primeran konbinatzen delako nire pijamarekin. Eta orain, emaidazu musu bat, maitea. Zu zara-ta mundu honetako musu-emailerik onena.

CAROL- (*Xuxurlatuz*) Nogaz iten zenduan gusturago, beragaz ala nigaz?

BERNAT- Gusturago egin, zer?

CAROL- Sexua.

BERNAT- Sexua?

CAROL- Bai. Ohian, zein gustetan jatzun gehiao?

BERNAT- A, ba... Aizu, zure aita berehala etorriko da. Igo musika.

CAROL- (*Musika-aparatura hurbiltzen da*) Baie banda militarren musika gustetan jako.

BERNAT- Hara, harritzekoa! Ba hortxe daukazu nire lehengusinareni opari zoragarri bat: “Soldados y marineros, 1898”. Azpikoa da, bakarrik dagoena.

CAROL- *(Disko bat hartuz)* “Para Berni, suspiros y besos con pasión. Lita.” Nor da Lita?

BERNAT- Adelita, nire lehengusina. Jarri Kubako obertura.

CAROL- Zelan amatatzen da?

BERNAT- *(Estudioaren gortina artetik ageriz)* Carol, ON/OFF. *(Obeturaren hasiera entzuten dugun bitartean)* Eta orain, egin dezagun otoitz. O, Jauna, nire eskulturak Ragner jaunaren gustukoak izan daitezela. Ni Carolen aita fosilaren gustukoa izan nadila. Eta nire bizilagun Arnaldo ez dadila sekula konturatu egin diodan lapurretaz. Amen.

*(Baina lehen konpasak aditu orduko, isildu egiten da, argi-matxura bat dela eta. Une horretan, eszena erabat argiztatuko da. Eta hala egongo da aurrerantzean bi unetan izan ezik, pospoloak pizten direnean eta Jorge Rafaelen eszenan)*

BERNAT- Jode! Automatikoak salto egin du.

CAROL- Ez.

BERNAT- Bai.

*(CAROL itsuka argiaren etengailura hurbiltzen da, iluntasuna uxatu nahian eskuen laguntzarekin. Etengailua aurkitu, eta piztu eta itzali egiten du)*

CAROL- Bai.

BERNAT- Ez.

CAROL- Bai. Argia joan da. Nun dao kuadroa?

BERNAT- Sarreran.

CAROL- Kandelarik badekozu?

BERNAT- Ez dut uste.

CAROL- Ta surik? Txiskeroren bat edo pospoloek?

BERNAT- Hemen egongo da zerbait. *(Botilen inguruan bilatuz, haztamuka)* Joder, ez dago ezer! Begiratu estudioan. *(Biak itsumustuka dabilta pospolo bila)*

*(Telefonoak jotzen du)*

BERNAT- Kaka zaharra! *(CAROL estudiora doa)*

CAROL- Topau dodaz.

BERNAT- Horixe bakarrik behar genuen!

*(Telefono aldera doa: joka segitzen du)*

Ondo. Banoa.

*(Telefonoa hartzen du) Bai? (...)*

CAROL- Ai! Orratzak direz! *(Aurkitu duen kaxa ez da pospoloena)*

BERNAT- Zer? (...) *(Izututa)* Esan? (...) Ez, ez, ez, ondo nago, oso ondo. (...) Zer? (...) *(Aurikularra estaltzen du esku batez. Caroli)* Maitea, begiratu logelan, han egongo da txiskeroren bat, seguru.

CAROL- Baie zuk ez dozu erretan-da! Salan eukiko dozu.

BERNAT- Ez. Oraintxe gogoratu naiz logelan denetik daukadala: pospoloak, txiskeroa eta kandelak. Argazkia aurkitu duzun mesanotxean. Zoaz eta hartu dena, mesedez.

CAROL- Mesanotxean ez. Nik ez dot ezer ikusi.

BERNAT- Ez eztabaidatu, kontxo, eta egizu esan dizudana! *(Aztoratuta)*

CAROL- E, ez naz zure neskamea, e!

BERNAT- *(Bere burua kontrolatuz)* Sentitzen dut. Barkatu, maitea, baina iluntasunak urduri jartzen nau, txiki-txikitatik.

CAROL- Eta hamengo pospoloek, nun daoz?

BERNAT- Ahaztu pospolo horiek. Mesedez, mugitu!

CAROL- Oso dibertigarrie hau dana. *(Eskailera igotzen du logelara joateko)*

BERNAT- *(Jarraitzen du aurikularra eskuarekin estaltzen. Caroli)*

Carol? Maitea?

*(Carolek erantzuten ez dionez, irribarre egiten du, pozik. Ahopeka telefonoz hizketan)*

Ceres, nondik ari zara? (...) Aireportutik! Zer egiten duzu hemen? Londresen zinela uste nuen. (...) Baina hiru hilabeterako esan zenuen-da. (...) Ez, ez da ideia ona. (...) Gaur gauean, ez. (...) Lanpetuta nabilelako. Eta ezin dut utzi esku artean daukadana: oso kontu inportantea da.

CAROL- *(Logelatik)* Ikusten! Esan deutsut. Mesanotxean ez dao ezer. Bueno bai, galtzerdi luze batzuk, txerri usainagaz...

BERNAT- *(Carolen ahotsa entzutean, aurikularra estaltzen du berriro)* Ba, garbitu! Alegia, begiratu beste kajoietan.

*(Telefonoari, aholpeka eta bizkor)* Aizu, bihar deituko dizut. (...) Ez, Ceres, ezetz. Gaur gauean ez. (...) Ezin zara etorri. (...) Begira, lehengo hilean gertatu zen...

CAROL- *(Offean, histeriko)* Berni, hamen ez dot ezer topetan! Mesedez!

BERNAT- *(Aurikularra estalita izan du. Orain aholpeka hitz egiten du telefonoan berriro)* Ceres, utzi egingo zaitut. (...) Zergatik hitz egiten dudan hain baju? (...) Ba, argia joan delako. (...) Aizu, bihar deituko dizut. Esan behar dizudana ez da telefonoz esateko modukoa. (...) Bai, gure harremanari buruzkoa da. Ceres, hau ez da une egokia zure purrustadak entzuteko.

*(CAROL logelatik jaisten da)*

CAROL- Alferrik da. Zure kuartuan ez dao ezer.

BERNAT- *(Telefonoan. Ahots normalez)* Zoaz lotara eta bihar argiago ikusiko duzu dena. Deituko dizut.

CAROL- Nogaz ebizan berbetan? *(Eskailerak jaitsiz)*

BERNAT- Lagun bategaz. Aspergarri mortala tipoa.

CAROL- Pospoloek bihar doguz!

BERNAT- Beheko "txinora" joango naiz. Seguru badituztela kandelatxo pijo horietakoak.

*(Oihuak entzuten dira, goiko pisutik datoz. Foruria andereñoa da, bere etxetik ari da jaisten)*

FORURIA- Lagundu! *(Offean)* Mesedez, laguntza behar det.

BERNAT- *(Oihuka)* Zu zara, Foruria?

FORURIA- Berni?

BERNAT- Bai.

FORURIA- Berni!

BERNAT- Bai!

*(Sarrerako atetik, Foruria andereñoa agertzen da, haztamuka. Adin ertaineko ezkongabe pinpirin-ustea eta ezpain-estua da. Blusa eta gona daramatza jantzita. Ilea, motots batean bilduta. Ezkongabe erreprimitu baten hizkera eta keinuak ditu; alkoholaren eraginez bakarrik galtzen du neurria. Bernat harengana hurbiltzen da, hainbat saialdiren ondoren, aurkitu egiten du)*

FORURIA- Hemen zaude, Jaungoikoari eskerrak! Hara, perlesiyak joko nau oaintxe. Izututa nao.



BERNAT- Lasai, Foruria andereñoa. Hemen salbu zaude. Argia joan da zure etxean ere?

FORURIA- Bai.

BERNAT- Garbi dago: matxura orokorra da.

*(Eskutik heltzen dio FORURIAri eta aulki batera eraman. Eseri egiten du. FORURIAk ez du BERNI askatu nahi)*

FORURIA- Ez det uste. Eskaileratik, behintzat, argia ikusten da kalean.

BERNAT- Orduan, etxearen koadro nagusian egongo da arazoa.

CAROL- Nun dao?

BERNAT- Sotoan. Baina ezin da sartu. Iberduerokoek bakarrik daukate giltza.

CAROL- Zer in bi ogu oin?

BERNAT- Telefonoz deitu oraintxe bertan.

CAROL- Eta etorriko dire hain berandu?

BERNAT- Aizu, zerbitzu publikoa da eta Europan gaude. Lasai, etorriko dira.

FORURIA- Bai jauna. Bestela, alkateari helaraziko diyot nere kexa.

BERNAT- Foruria, zuk ez duzu pospolorik izango, ezta?

FORURIA- *(Desengainua hartuta)* Ba, ez. Sentitze ´et. Aitortu beharra daukat ez nagola prestatuta ustekabeei aurre eiteko.

BERNAT- *(Aurkezpenak eginez. Caroli)* Maitea, Foruria andereñoa da. Goiko bizilaguna. Foruria andereñoa. Carol, Carol Murua.

FORURIA- Urte askotako.

CAROL- Urte askotarako.

FORURIA- Espero det aukera eukitzia laister elkar ikusteko.

CAROL- Baita neuk be.

FORURIA- Egoera hau ikaragarriya da, ezta?

CAROL- *(Bernati)* Zelan Ragneri deittu ta zita atzeratuten badogu?

BERNAT- Bai, nahiko nuke nik, baina ezinezkoa da. Ez daukat nola aurkitu.

CAROL- Lastima.

BERNAT- (*Eseri eta telefonoz hitz egiten du*) Kaixo, gabon. Mesede bat eskatu nahi dizut. Jarriko nauzu Iberduerorekin? (...) Ez, zerbitzu teknikoarekin. (...) Aizu, andereño, ezin dut apuntatu, ez dut ikusten. (...) Ez, ez didazu barkamenik eskatu behar. (...) Ez, ez naiz itsua. Baina ez dut ikusten. (...) Ez, ez da gauza bera. (...) (*Etsita*) Argia joan zaigu, ulertzen duzu! (...) Gor utziko zaitudala? Begira ze ondo, zu gorra eta ni itsua. (...) Aizu, mesedez, hau larrialdia da, bizilagun bat daukat hemen bihotzekoak jotzeko zorian. (*Garrasika*) Foruria, mesedez!

FORURIA- Bai, bai, badator, bai, bai, bai, hemen da.

BERNAT- (*Telefonoan*) Ikusten? (...) Eskerrik asko. (*Bere artean*) Hau ergel koadrila!

FORURIA- Arrazoi guztiya dakazu, ez zaye batere ulertzen. Seguru ez zala hemengua.

BERNAT- (*Foruria andereñoari*) Ba bai, hemengoa zen. Baduzu kandelarik?

FORURIA- Ez, ez det inoiz erabiltzen. Sentitze ´et.

BERNAT- (*Bere artean. Foruria andereñoaren ahotsa imitatuz*) “Ez, ez det inoiz erabiltzen. Sentitze ´et.” (*Telefonoz*) Bai? (...) Ez naiz zurekin ari. Aizu, matxura bat daukagu. Argia joan da Jardines kaleko 18. zenbakian. (...) (*Etsita*) Bai, bai! Ondo da. (...) Ez moztu, mesedez. (...) Denak berdina dira. Tentel hutsak!

FORURIA- Zure baimenarekin, ideya bat emango izut.

BERNAT- Foruria andereñoa, nire baimena duzu nahi duzun guztia egiteko.

FORURIA- Baliteke Calonge jaunak, zure aldameneko bizilagunak, kandelan bat eukitzia. Kanpora jun da astebukaera pasatzea, ez naiz goatzen noa, baina giltza alfonbra azpiyan uzten du beti.

BERNAT- Ederto! Ideia bikaina! Arnaldok izango ditu kandelak, seguru. Haren etxera joango naiz. (*Caroli*) Tori telefonoa.

(*CAROLEk telefonoa hartzera doala, kolpe bat ematen dio ustekabeen BERNIri*)

Ai, ai!

FORURIA- Ondo al zaude, Milla jauna?

BERNAT- Ondo, bai, ondo izorratuta! (*Ate aldera doa*) Banekien! Hau izango da nire bizitzako gaurik txarrena.

CAROL- Lasai, laztana! Ez larrittu.

(*BERNAT ARNALDOren etxera doa*)

FORURIA- Murua andereñoak arrazoya daka: lasaitasunari eutsi behar diyogu.

CAROL- *(Telefonoz)* Bai? Esan? *(Ez dio inork erantzuten)* *(Foruria andereñoari)*  
Gaur gauean pasatea be! Berni koittae. Suerte eskasa deko.

FORURIA- Gau bereziya al da zuentzako?

CAROL- Ezazuten dozu Jorge Ragner argentinue?

FORURIA- Bai, noski. Oso gizon aberatsa da, ezta?

CAROL- Bai. *(Telefonoz)* Bai? *(Inork ez du erantzuten)* *(Foruria andereñoari)*  
Ba, hona etortekoa da gaur gauean.

FORURIA- Gaur gabian!

CAROL- Hogei minutu barru. Eta ganera gorra baino gorragoa da.

FORURIA- Ene! Gorra eta gainea ez du batere ikusiko! Eta, zertara dator?

CAROL- Berniren lanak ikusi ebazan argazki batzutan, eta itxuria danez gusteu in jakozan. Idazkariak deitu eban lehengo astean preguntetako ia aukerarik egoan Berniren eskulturak ikusteko. Ragner jaunak bat erosten badeutso, eskultore famatue ingo da.

FORURIA- Hara! Hau da emoziyua!

CAROL- Aukera itzela da Bernintzako. Edo “zan”, oin dala gitxira arte.

FORURIA- Laguntza lortu behar degu. Ze gertatze ´a telefonoakin?

CAROL- *(Telefonoz)* Hola! Igual bonba bat ipini ta hilde daoaz guztixek.

FORURIA- Etzazu halakoik esan, maitia. Ezta brometan ´e. Bestela ´re, nahiko sufrimendua dago-ta munduan.

CAROL- *(Azkenean, erantzun egiten diote. Telefonoz)* Bai? (...) Eskerrak! Jardines kaleko 18. zenbakitik deitzen deusut. Argi barik gaaz. (...) Zenbet pisutan? Ba, danetan uste dot. (...) Bai, mesedez, oso urgentea da. Eskerrik asko. *(Eseki egiten du)* Gaur gauean etorriko ei dire. Batek daki noz!

FORURIA- Zerbitzu publikua, maitia. Nere gazte denboran, jendea arduratsuagoa zan, eta horri eskerrak ondo zebilen dana. Argia, gasa; dan-dana. Oain, berriz, gehienak kanpotarrak dira eta oso gaizki hitz egiten dute. Eta, inbidiya digutenez, ba oaindikan okerrago. Ez dute hitz egiten, zaunka egiten dute.

CAROL- Gura dozu kopatxu bet?

FORURIA- Ez det eaten, maitia. Nere familiyan, sekula ez degu alkoholik hartu.

*(Sekulako zarata entzuten da offean)*

MURUA KAPITAINA- *(Offean)* Sasikume arraioak! Ba al dago inor?

CAROL- Hamen gaoz, aita.

KAPITAINA- Kaguen sos! Faborez, piztu ezazu argi madarikatu hori! Kaskezurra txikitu ez dudanean kaka zikin horrekin!

CAROL- Hamen ezer ez dabil. Argia joan da.

*(MURUA KAPITAINA agertzen da atean. Merkataritzako Nabigazioko kapitainaren traje urdina dauka jantzita; almirantea ematen du. Metxero baten laguntzaz ibiltzen da. Sartzen denean, eszenatokiko argia jaitsi egiten da pixka bat)*

FORURIA- Eskerrak Jaungoikoari! Argi bat azkenian!

CAROL- *(Foruria andereñoari)* Nire aita, Murua kapitaina. *(Bere aitari)* Foruria andereñoa, goiko auzokoa.

KAPITAINA- Gabon, andereño.

FORURIA- Gabon, kapitain jauna. Babes bila etorri naiz Milla jaunaren etxera: iluntasunak ikaragarri ikaratzen nau.

KAPITAINA- Noiz joan da argia?

CAROL- Oin dala hamar minutu. Holan, bat-batean.

KAPITAINA- Eta non dago etxea babestu beharko lukeen gizona?

CAROL- Ondoko etxean. Kandela bile joan da.

KAPITAINA- Hemen ez dago kandelarik, ala?

CAROL- Ba, ez, ez dao. Eta ganera ez doguz pospoloek topetan.

KAPITAINA- Ya. Ez dago prestatuta larrialdi baterako. Ondo hasi gara.

CAROL- Aita, mesedez. Hori edonori gertatu ahal jako.

KAPITAINA- Niri ez.

*(KAPITAINAk Berniren eskultura bat ikusten du)*

Ze arraio da hau?

CAROL- Berniren eskultura bat.

KAPITAINA- A. Eta inori interesatzen zaio "hau" erostea?

CAROL- Jakina, 100.000 pezeta balio dau.

KAPITAINA- Zer!?

CAROL- (*Urduri, hizketagaia aldatu nahian*) Gustetan jatzu etxea, aita? Estilo haundikoa, ezta? Ederto baten nahistuten dauz lujua ta sinpletasuna. Moderno-modernue, barri-barrie!

KAPITAINA- (*Budari begira*) Pieza bikaina! Gustu ona dauka. Bai jauna. Hau bai dela benetako artelana. Garbi asko ulertzen da zer irudikatzen duen. Beste "hori", berriz... (*Bernaten eskultura seinalatuz*)

FORURIA- Jainko maittia, zer ikusten ari naiz?!

CAROL- Zer pasetan jatzu?

FORURIA- Ezer ez. Buda hori. Arnaldo Calongek berdin-berdina dauka.

(*Carol izututa dago*)

KAPITAINA- San Apapuzioren izenean. Izugarri garestia behar du! (*Caroli*) Orduan, baliabideak ditu...

CAROL- Bueenoo... Bai.

KAPITAINA- (*Budari begira*) Koloreak oso ederrak dira, eta aurpegi honek norbait gogorarazten dit... (*makurtu egiten da hobeto ikusteko*)

CAROL- (*Bizkor, Foruria andereñoari*) Ezetuten dozu Calonge jauna?

FORURIA- Noski! Adiskide haundiyak gera. Ez dakizu etxean ze gauza politak... (*Haren aulki bat ikusten du*) Aaa! Aulki hori!

CAROL- Zer dekozu?

FORURIA- Eta sofa... Jainko maittia!

CAROL- (*Bizkor, aitari*) Aita, zergatik ez dozu beituten kortinan atzean? Bernin estudioa da.

KAPITAINA- Zertarako, panpoxa?

CAROL- Ba... kapela ixteko.

KAPITAINA- Oso ondo, panpoxa.

(*KAPITAINA estudiora doa. Metxeroa eraman du. Argia igotzen da eszenan. Carol sofan esertzen da, Foruria andereñoaren ondoan. Hitz egiteko moduagatik, ematen du konspiratzen ari direla biak.*)

CAROL- (*Ahopeka*) Foruria andereñoa, zu pertsona zintzoa zara, ezta?

FORURIA- Ez dakit ba ze esan. Baina ze itten dute altzari hauek hemen? Arnaldo Calongenak dira.

CAROL- Bakit. Oso gauza itsusia in dogu. Pieza onenak hartu deutsoguz eta trukean Bernin mueble zatarrak itxi.

FORURIA- Baina, hori lapurreta ittea da. Zeatik in dezue?

CAROL- (*Sentimendu handiz*) Ba, nire Berni koittadue arratoiak bezain pobria dalako. Aitak etxea dan moduen ikusi izan baleu, ez zeustan itxiko beragaz ezkonduen. Ez geneutson baimenik eskatu Calonge jaunari kanpoan egoalako.

FORURIA- Arnaldo konturatzen danian altzariak eta portzelanak ikutu dizkiyotela, erotu ingo da. Ta ze esanik ez Buda ikusten dunian. (*Beste norabiderantz seinalatuz*) Izugarri garestia behar du horrek.

CAROL- Mesedez, Foruria andereñoa, ez gaizuz salatu. Mesedez. Mesedez.

FORURIA- (*Irribarrez*) Ondo da. Ez det ezer esango.

CAROL- Eskerrik asko! Mila-mila esker!

FORURIA- Baina baldintza batekin: lehen zegon bezelaxe utziko dezue dana bixitak hemendik alde egin orduko.

CAROL- Ai, Foruria andereñoa, aingeru bet zara! Aingerue, bene-benetan! Gura dozu kopatxu bet? Ai, barkaiztazu, ez dozu-ta edaten. Ta limonada bet?

FORURIA- Hori onartuko dizut. Eskerrik asko.

(*KAPITAINA estudiotik irten eta eszenan sartzen da. Metxeroa piztuta dauka. Argiak jaitsi egiten dira pixka bat*)

KAPITAINA- (*Caroli*) Horko “gauza” horiek eskulturak omen dira.

CAROL- “Omen dira” ez, aita, “dira”.

KAPITAINA- Ya. Ba nik erreminta-itxura hartzen diet. Bada bat izugarri ederra: aitzurra galanta.

(*FORURIA barrez*)

CAROL- Horrek ez deko bape graziarik, aita.

(*FORURIAk barre egiteari uzten dio*)

KAPITAINA- Barkatu, panpoxa.

CAROL- Ai, ez jata gustetan “panpoxa” deitutea.

KAPITAINA- (*Kasurik egin gabe*) Lasai, panpoxa. (*Metxeroari erreferentzia eginez*) Ezin dugu alferrik gastatu daukagun argi bakarra. Baliteke geroago behar izatea. (*Metxeroa itzaltzen du*)

(*FORURIAk hasperen egiten du argia igotzen denean eszenan*)

CAROL- (*Foruria andereñoari*) Ez larrittu. Berni ensegida etorriko da kandlekaz.

FORURIA- Ni banoa hemendik. Ez dakat-eta zer ikusirik zuekin.

KAPITAINA- Zertaz ari da?

*(BERNAT Arnaldoren etxetik itzultzen da)*

BERNAT- Hemen naiz berriro.

CAROL- Eskerrak. Topau dozuz kandelak?

BERNAT- *(Etxean sartuz)* Kandelak? Han ez dago ez kandelarik, ez pospolorik, ez ezer. Hitz egin duzu Iberduerokoekin?

CAROL- Bai. Gaur gauean etorriko ei dire, ez dakit noz.

BERNAT- Ez dakizu noiz?

CAROL- Eurek ez dakie.

BERNAT- Ederto! Etxe osoan ez dago kandela ziztrin bat ere, millonario gor bati erakutsi behar dizkiot nire eskulturak, eta zure aita fosilari frogatu suhi ona izango naizela. Zoragarria dena! Etorri, maitea, eman musutxu bat! *(Kapitaina magalean esertzen du Carol delakoan)*

KAPITAINA- *(Metxeroa piztu eta Bernati, hilobiaz haraindiko ahotsarekin)* Gabon!

*(Bernat, izututa)*

CAROL- Berni, hau nire aita da.

BERNAT- *(Ez daki zer esan)* Ondo, oso ondo, oso-oso ondo. *(Larri)* Gabon, nire kapitaina. Pozgarria da zu gure artean izatea. Ni... bi bizilagunen zain nengoen. Bata gorra eta bestea zahar-zaharra, fosila ia... alegia, munstroak biak. Eta niri ez zait batere gustatzen halako jendea etxean hartzea, oso urduri jartzen naiz, baina... tira... ba... ondo!

KAPITAINA- *(Lehor)* Ondo.

FORURIA- *(Urduri)* Ondo, ondo...

CAROL- *(Distiratsu)* Ondo!

KAPITAINA- *(Bernati)* Dirudienez, arazo txiki bat daukazu, ezta?

BERNAT- *(Ezin urduriago)* A, ez, ez, ez! Argia joan zaigu, besterik ez. Askotan gertatzen da... Ez da bizirik irten naizen lehen larrialdia, eta espero dut azkena ere ez izatea. *(Barre-algaraka)*

KAPITAINA- *(Kapitaina altxatu egiten da Berniren altzotik. Errukigabe)* Pospolorik ez daukazu. Hala da?

BERNAT- Hala da.

KAPITAINA- Ezta kandelarik ere. Hala da?

BERNAT- Hala da.

KAPITAINA- Horrek garbi frogatzen du ez zarela gai arazoei irtenbidea bilatzeko. Hala da?

BERNAT- Hala... Nik ez nuke hori esango, nire kapitaina...

KAPITAINA- Hemen zuhurra izan beharra dago eta garbi eduki bizitza, barkuak bezala, ez dela berez gobernatzen.

BERNAT- Zorabiatzen ari naiz.

KAPITAINA- Zer egin behar duzu?

BERNAT- Egin?

KAPITAINA- Ez errepikatu nire hitzak! Ez zait gustatzen.

BERNAT- (*Bere artean*) Ez zaio gustatzen.

KAPITAINA- Zer!

BERNAT- Ezer ez, nire kapitaina.

KAPITAINA- Eta ez deitu nire kapitaina. (*Etenaldia*) Azter dezagun egoera. Benetan larria, begi-bistan dagoenez.

BERNAT- Hemen ezer gutxi dago begi-bistan. Hori bai dela larria. (*Barre-  
algara*)

KAPITAINA- Ez da une egokia txantxetarako.

BERNAT- Arrazoi duzu.

KAPITAINA- Ederki. Arazoa: iluntasuna. (*Metxeroa itzaltzen du*) Irtenbidea: argia.

BERNAT- Oso ondo, jauna!

KAPITAINA- Armak: pospoloak. Ez dago. Kandelak. Ez dago. Beste irtenbiderik?

BERNAT- (*Bere artean*) Eta nik ze arraio dakit!

KAPITAINA- (*Garaile*) Ba, zuziak! Zuziak, marinela. Ze iruditzen?

BERNAT- (*Bere artean*) Honek Neron dela uste du!

KAPITAINA- Zer esan duzu?

BERNAT- Kapitaina, etxe honetan ez da sekula entzun halako ideia bikainik.



KAPITAINA- *(Harro)* Errutina, besterik ez. Non aurkituko dugu zuzi bat?

BERNAT- Txinoan.

KAPITAINA- Primeran.

BERNAT- Ze ordu da?

*(Kapitaina metxeroa pizten saiatzen da. Lortzen du saialdi batzuen ondoren. Eszenatokiko argia igo eta jaitsi egiten da)*

KAPITAINA- Ez hartu arnasarik! *(Erlojuari begiraturaz)* Hamarrak laurden gutxi. Bizkor, mugitu itxi baino lehen.

BERNAT- Ez, haiek ez dute inoiz ixten. Zure buru argiak salbatu gaitu.

*(Kapitainak metxeroa itzaltzen du)*

CAROL- Zorte on, laztantsu.

BERNAT- Eskerrik asko, maitea.

*(Carolek musu bat bidaltzen dio. Bernatek itzuli egiten dio)*

KAPITAINA- Utzi txepelkeriak eta zoaz zuzi bila!

*(Bernatek popatik bidaltzeko keinua egin eta ate bila hasten da haztamuka. Aurkitzen duenean, Arnaldoren ahotsa entzuten da)*

ARNALDO- *(Offean, oso modu itxuratian hitz egiten du)* Kaixo? Ba al da inor etxean?

BERNAT- *(Izututa)* Arni!

ARNALDO- *(Offean)* Berni?

BERNAT- *(Caroli)* Arnaldo. Itzuli egin da.

CAROL- Ai, ez!

BERNAT- *(Larri)* Altzariak!

ARNALDO- *(Offean)* Zer gertatzen da hemen?

*(Arnaldo sartzen da atetik. Antzinako gauza txinatarrak saltzen dituen denda baten jabea da. Harengan itxura da dena: hitz egiteko modua, arropa, keinuak... Harremanetan oso posesiboa da eta baldintzak jartzen ditu beti. Lehenago edo geroago zerbait eskatzen du trukean. Histeriko jartzen da norbaitek gutxietsi edo arbuiatzen duenean. Gabardina bat darama sorbalda gainean, oso dotorea.)*

BERNAT- Ezer ez, Arni. Argia joan zaigu. Ilunpetan dago etxe osoa. Kontuz ibili.

ARNALDO- *(Pauso batzuk ematen ditu)* Deitu duzu konpainiara?

BERNAT- Bai. *(Besotik heltzen dio)* Etorri, Arni.

ARNALDO- A ze erromantikoa: biok bakarrik, ilunpetan.

BERNAT- *(Larri)* Bai, hori da! Beraz, asteburua etxetik kanpo ez ematea erabaki duzu.

ARNALDO- Ederra asteburua! Euria goian behean, atertu gabe! Blai eginda dauzkat galtzontziloak ere.

BERNAT- *(Urduri)* Hartu zerbait eta gero kontatuko diguzu.

ARNALDO- *(Harriturik)* "Diguzu"? Norekin zaude ba?

FORURIA- Nekin, Arnaldo.

ARNALDO- Foru?

FORURIA- Bai. Babes bila etorri naiz. Bakizu ikaragarri ikaritzen nauela iluntasunak.

KAPITAINA- *(Metxeroa pizten saiatzen da)* Arraioa! *(Lortzen du azkenean)* Listo. *(Metxeroa altxatzen du Arnaldoren aurpegi pareraino, ondo ikusteko)* Nor zara zu?

BERNAT- *(Loreontzia mahai azpian gordetzen du. Bizkor, kapitainari)* Arnaldo Calonge jauna, nire bizilaguna. *(Arnaldori)* Arnaldo, Murua kapitaina.

KAPITAINA- Zer moduz?

ARNALDO- Urte askotarako!

BERNAT- *(Arnaldori)* Eta andereño hori Carol Murua da, kapitainaren alaba.

CAROL- *(Oso hotz)* Hola.

*(BERNATek gabardina kentzen dio Arnaldori eta sofara botatzen du, estaltzeko asmotan. Arropa dotorea darama: praka beltzak eta alkandora loreduna)*

KAPITAINA- *(Arnaldori)* Zuk ere ez duzu kandelarik izango, ezta?

ARNALDO- Ez, ez daukat. Bitxia badirudi ere, ez dut erabiltzen.

*(BERNATek metxeroa itzaltzen du. Argia igotzen da eszenan.)*

KAPITAINA- *(Bernati)* Zergatik itzali duzu?

BERNAT- Erregaia aurrezteko, nire kapitaina. Gero, beharbada, beharko dugu, eta oso bizkor ari zen kontsumitzen.

*(KAPITAINAk errezeloz begiratzen dio. BERNI mahaitxoia estaltzen duen zapia hartu eta sofaren eskuineko aldean estaltzen saiatzen da)*

ARNALDO- *(Kapitainari)* Ez kezkatu, kapitain jauna. Pospoloak dauzkat.

BERNAT eta CAROL- *(Biak batera)* Pospoloak!

ARNALDO- Hemen daude. Beti bezala, momentu egokian iritsi naiz. *(Pospolo bat pizten du. Argia jaisten da eszenan)*

*(BERNATek putz egin eta itzali egiten du)*

ARNALDO- *(Pospoloa eskuan)* Zer gertatu da?

BERNAT- *(Zalantza eginez)* Ba... aire-korrontea dabilela. Ez dago modurik gela honetan pospolo bat piztuta edukitzeko. Ezinezkoa da. Badakizu, korrontea... oso txarra korrontea.

ARNALDO- *(Nahasirik)* Berni... zer zabilta?

*(ARNALDOk beste pospolo bat pizten du. BERNIk itzali egiten du eta aulki batean esertzera doa korrika. ARNALDOk ikusi egin du)*

Berni, ikusi zaitut. Zer duzu?

BERNAT- Ezer ez.

ARNALDO- Norbait akatu eta etxean daukazu gordeta?

BERNAT- Ez! *(Barrez hasten da eroen pare)*

ARNALDO- Zuk edan egin duzu!

BERNAT- Ez, gaur ez. Benetan.

*(ARNALDOk beste pospolo bat pizten du. BERNIk bizkor altxatu eta itzali egiten du)*

ARNALDO- *(Nazkaturik)* Nahikoa da. Berni, esaidazu behingoz ze arraio gertatzen zaizun.

BERNAT- *(Asmatuz)* Arni, arriskuan zaude.

ARNALDO- Zer?!

BERNAT- *(Irmo)* Arriskuan zaudela. Denok gaude arriskuan. Hil egingo gara, sugarretan! Lehertu egingo gara!

ARNALDO- Ez dizut piperrik ulertzen. Hemen zerbait arraroa gertatzen ari da.

BERNAT- *(Sofa aldera eramanez kontu handiz)* Ba, oso sinplea da. Iberduerokoek beti esaten dute: etxe zaharretan, argien koadroa eta gas-kontagailua armairu berean egoten dira.

KAPITAINA- Eta zer?

BERNAT- Eta zer?! Ba, argia joaten denean, gas-kontagailua kaltetu egiten da. Hala gertatzen omen da beti. Horregatik, arrisku bizian gaude pospoloak pizten baditugu gela honetan.

*(BERNI sofán esertzen da ARNALDOren gainean)*

ARNALDO- Ai!

KAPITAINA- *(Harrituta)* Nik ez dut inoiz entzun halakorik.

ARNALDO- Neuk ere ez.

BERNAT- Ba, horrela da. Ez piztu pospolo gehiago, mesedez.

CAROL- *(Egoeraz jabeturik, laguntza ematen dio Bernati)* Bernik arrazoi guztie deko. Argi Konpainiara deitu dodanean holan esan deustie: "Edozer gertatuta ere, etzazue piztu pospolorik argia itzuli arte".

BERNAT- Ikusten! Oso arriskutsua da.

KAPITAINA- *(Samur, Caroli)* Zergatik ez didazu lehenago abisatu, panpoxa?

CAROL- Ba... ahiztu egin jata, aita.

KAPITAINA- Nola liteke!

FORURIA- Jainko maittia, kontu haundiz ibili behar degu.

BERNAT- Noski, Foruria andereñoa. *(Etenaldi laburra)* Har dezagun tragoxka bat. Relajatu behar dugu-ta.

CAROL- Ideia itzela! *(Arnaldori)* Calonge jauna, zeozer hartu gura dozu?

ARNALDO- Gustura hartuko nuke. Ondo merezita daukat: bidaia beldurgarria izan da. Lau orduko auto-ilarak. Autobusa gainezka. Umeak negarrez, amak garrasika, mozkor mordoa kantu-kantari. Txakur txiki bat zaunka betean. Denak jaten eta edaten, den-denak ni izan ezik. Lau ordu jan gabe, edan gabe, garrasi egin gabe. Txakurra jateko zorian egon naiz.

FORURIA- Ez dakit zergatik ez duten jartzen jatetxe-zerbitzurik edo...

ARNALDO- Bai zera! Eta dutxa ta masajea komunean! Barkatuko didazue: aurpegia freskatzera noa. Berehala nator. *(Sofatik altxatzen da)*

BERNAT- *(Larri)* Ez joan, Arnaldo. Hemen egin dezakezu. *(BERNIK eserrarazten du berriro)*

ARNALDO- Eskerrik asko, baina maleta zabaldu beharra daukat. *(Sofatik altxatzen da berriro)*

BERNAT- Gero zabalduko duzu.

ARNALDO- Ez. Ezin ditut aguantatu traje zimurtuak.

BERNAT- (*ARNALDOren atzetik abiatzen da eta ustekabean ipurditik heltzen dio*) Bost minutugatik ez da ezer gertatuko, Arni?

ARNALDO- Hemen zuk agintzen duzu, laztana. (*Sofan esertzen da*)

CAROL- (*Arnaldori*) Zer gura dozu, whiskia, rona, ginebra?

ARNALDO- Gin-tonika limarekin, inporta ez bazaizu.

KAPITAINA- (*Bernati*) Aizu, gazte, ez ahaztu larrialdi egoeran gaudela. Denbora gutxi barru hemen izango da zure gonbidatua.

BERNAT- Ostia! Ahaztuta nengoen.

KAPITAINA- Hemen mundu guztiak ahazten ditu gauzak. Zoaz txinatar horiengana eta ekarri zuzi horiek. (*Gogoratuz*) Ez, ahaztu zuziak. Ekartzazu linterna bat.

BERNAT- Zure aginduetara, nire kapitaina! (*Caroli*) Carol, etorri pixka bat, mesedez?

CAROL- Hamen nao. (*Bernatengana hurbiltzen da. Honek eskailera aldera eramaten du. Logelara igotzen dira*)

KAPITAINA- Zer nahi duzu orain?

BERNAT- (*Kapitainari*) Barkatu. Ez naiz luzatuko.

FORURIA- (*Arnaldori. Sofan eserita daude biak*) Arnaldo, hau da emoziyua! Ezetz imajinatu zein etorriko dan gaur gabian.

ARNALDO- Zein?

FORURIA- Imajinatu, ba!

ARNALDO- Miguel Bose!

FORURIA- Ai, Arnaldo, etzazu txorakeririk esan.

(*Bernat eta Carol logelako ateraino iritsi dira. Bernatek zabaldu egiten du eta biak sartzen dira. Bernatek atea ixten du. Elkarrizketa hasita dago*)

CAROL- Ez dakit!

BERNAT- Pentsa ezazu!

CAROL- Baie...

BERNAT- Pentsatu!

KAPITAINA- (*Arnaldori*) Aizu, Milla jauna pixka bat pitzatuta dago, ezta?

ARNALDO- Pitzatuta? Bai zera! Zoragarria da-ta. Aspaldian ezagutzen dut, hona bizitzera etorri zenetik. Ez daukagu sekreturik bion artean. Bat ere ez.

KAPITAINA- (*Oso hotz*) Benetan?

ARNALDO- Benetan. Berni oso mutil samurra da.

BERNAT- (*Caroli*) Arnaldoren gauzak hartu eta etxera eraman behar dizkiogu.

CAROL- Oin?

BERNAT- Bai. Oin. Ezin dut linternarik ekarri gauza guztiak han egon arte.

CAROL- Ezin dogu hori egin.

BERNAT- Baina egin behar dugu. Arnaldo erotu egingo da konturatuz gero.

ARNALDO- (*Foruria andereñoari*) Foru, mesedez, esaidazu nor etorriko den.

FORURIA- Pista bat emango dizut. Diru asko dauka.

ARNALDO- Diru asko? Ba...

KAPITAINA- (*Oihuka*) Carol!

CAROL- (*Bernati*) Zergatik ez deusogu esaten broma dala dana?

BERNAT- Zer nahi duzu, senargairik gabe geratu? Ez duzu Arnaldo ezagutzen. Ama batek umeak bezala zaintzen ditu altzariak. Egunean birritan garbitzen ditu zisne-luma berezi batzuekin. Gainera, gustatuko litzaizuke niri lapurra deitzea zure aitaren aurrean?

CAROL- Ez, hori ez!

BERNAT- Ba, Arnaldori bai. Histeriko hutsa da. Oso ondo ezagutzen dut.

KAPITAINA- (*Oihuka*) Milla jauna!

BERNAT- Carol, jaitsi egongelara eta edariak zerbitzatu. Ez utzi Arnaldori pospolorik pizten. Gainerakoa, nire esku. Saiatuko naiz Arnaldoren gauzak zeuden bezala uzten.

CAROL- Hau ez da ongi urtengo.

BERNAT- Bai, urten beharko du.

KAPITAINA- (*Garrasika*) Bernat Milla!

BERNAT- Banoa, nire kapitaina! (*Lasaitzeko ahaleginean*) Giltzen bila nabil, ohe azpian daudela uste dut.

KAPITAINA- (*Bere artean*) Nire ustez, mutil hau pitzatuta dago. (*Oihuka, aginduzko ahotsarekin*) Bizkor, Milla jauna.

BERNAT- Zure aginduetara, nire kapitaina! Prest nago. Laguntza bidean dator.

*(Carol eskaileretatik jaisten da)*

KAPITAINA- *(Berniri)* Ederki. Segi.

BERNAT- Bidean naiz. Carolek trago batzuk aterako dizkizue. *(Caroli)* Ragner jauna etortzen bada, azaldu zein den egoera. Zure aitaren agindua betetzera noa.

ARNALDO- *(Eskutik heltzen dio Bernati)* Zurekin joango naiz, laztana?

BERNAT- Ez, ez, ez... Horixe bakarrik behar genuen. Zu geratu hemen eta disfrutatu.

ARNALDO- Nola disfrutatuko dut zu ondoan ez bazaitut?

BERNAT- Txakurrarekin egin duzun bidaia beldurgarri horren ondoren, oso ondo etorriko zaizu atsedean pixka bat hartzea gin-tonik batekin. Berehala nator. *(Kapitainari)* Bidean naiz, nire kapitaina.

*(Atera iritsi eta itxi egiten du danbateko bat emanaz. Barruan geratzen da. Atetik gertuen dagoen Regente aulkia hartu eta altxatu egiten du Arnaldoren etxera eramateko asmotan)*

CAROL- *(Etsita)* Ederto! Ze hartu bi ozue? Gin-tonika limagaz Arnaldontzako, whiskia aitantzako eta limonada Foruria andereñontzako.

KAPITAINA- Esango didazu nola demontre moldatu behar duzun edariak prestatzeko hor ilunpetan, panpoxa?

CAROL- Buruz dakit nun daozen botila guztiek. Oso erraza izango da.

*(BERNik atea zabaldu eta aulkia eramatera doa, baina Carolen bizkarrarekin talka egiten du, eta kolpearen eraginez Carol eseri egiten da aulkian, BERNIren oina aulkiaren azpian hartuz)*

ARNALDO- *(Caroli)* Utzidazu pospolo bat pizten. Ziur naiz ez dagoela inolako arriskurik. *(Pospoloa pizten du)*

CAROL- Ai, ez!

*(BERNik, aulki ondoan makurturik, itzali egiten du putz eginez)*

Zer gura dozu, etxeak eztanda eitea? Ragner koittaduak gure tripak bakarrik topeko dauz han da hemen botata. Kristolako txerrikerie.

ARNALDO- Ragner, Jorge Ragner? Bera da etortzekoa dena?

FORURIA- Bai. Milla jaunaren lana ikustera omen dator. Ez al da hunkigarriya?

ARNALDO- Lehengo astean, artikulu bat irakurri nuen El País-en haren ingurukoa. Millonario misteriotsua deitzen diote. Gor-gorra da eta etxean sartuta

ematen omen du denbora gehiena bere artelanez inguratuta. Noizean behin irteten omen da erakusketaren bat ikustera joateko. Eta gaur hona etorriko da. Pozten naiz, batez ere nire Berni maiteagatik.

*(BERNAT bere aulki batekin sartzen da eta lehen eraman duen Regente aulkia zegoen tokian uzten du. Gero, telefono ondora abiatzen da han dagoen taburetea hartzeko asmoz Arnaldoren etxera eramateko)*

FORURIA- Nik ez det sekula millonariarik ezagutu. Beti jakin nahi izan det gugandik diferenteak ote diran. Berdin sentitzen ote duten, gure azalaren berdina ote duten.

KAPITAINA- Azala?

*(BERNI KAPITAINAREN ondoan dago. Haren ahotsa entzutean, sekulako sustoa hartzen du. Telefono aldera jarraitzen du. Taburetea hartu eta ate aldera abiatzen da)*

FORURIA- Bai. Millonarioen azalak gurea baino leunagoa behar du. Nik txikitan nekana bezain leuna.

KAPITAINA- Oso irudi interesgarria!

ARNALDO- Foruren metaforak ospetsuak dira bizilagunen artean. Hain da delikatua, hain sotila, bainilla-lorea dirudi.

FORURIA- Arnaldo, mesedez, gorritu egingo nauzu.

ARNALDO- Zure masailen gorriminak begirada loratzen dizu.

FORURIA- Ai, Arnaldo, ze zalamerua!

*(BERNI iritsi da ate ondora. Lurrean uzten du taburetea atea bilatzeko. Ez du aurkitzen taburetea. Azkenean, aurkitzen du eta irten egiten da)*

FORURIA- Nere gazte-denboran, azal zuriya eta leuna eukitzia zan dotoreziyaren seinale. Gaur egun, berriz, gazteak eguzkitan kiskaltzen dira, ogi-xerrak balira bezela. Jaungoikoari eskerrak, nik ez det sekula premiarikan izan bikinia jatzeko.

ARNALDO- A, ba orain oso bikini erosoak daude. Dotore-dotore egongo zinateke zu bikinia jantzita, Foru.

*(BERNI bere aulki kulunkariarekin itzultzen da Arnaldoren etxetik)*

FORURIA- Jesus, Maria eta Jose! Ni halako trapu ziztrin batekin. Osabak burua altxatuko balu. Arrazoia zuen: "Ai, Ana Isabel, nola aldatzen dan dan-dana. Zer egin behar degu guk, buru-argiok, hainbeste gaizkileri aurre egiteko? Zer egin behar degu gaur eguneko gazte galdu eta nahasiyak bideratzeko? Nere osaba gixajua, arrazoi guztiya zekan!



*(BERNI kapitaina dagoen lekura iritsi da. Haren ahotsa entzutean, sekulako sustoa hartzen du berriro. Kapitainaren atzean uzten du aulki kulunkaria)*

KAPITAINA- Zertan lan egiten zuen zure osabak?

FORURIA- Jaungoikoaren gizona zan, kapitain jauna.

KAPITAINA- A! *(Caroli)* Zer moduz edari horiek, panpoxa?

CAROL- Ointxe egongo dire, aita.

KAPITAINA- Utzi laguntzen.

*(BERNAT, belauniko KAPITAINAREN ondoan, keinuka bultza egin nahian dabil Kapitaina eserita dagoen Regente aulkitik altxa dadin)*

CAROL- Gura badozu, eroan limonadea Foruria andereñoari.

KAPITAINA- Oso ondo. *(Altxatu egiten da)*

*(BERNATEK aulkia altxatu eta aulki kulunkaria uzten du haren tokian. Kapitainak egongela zeharkatzen du edari bila joateko. Talka egiten du egongela erdian dagoen mahaitxoarekin. Une horretan, BERNI ere mahaiaren parera iritsi da. BERNI atera egiten da)*

CAROL- Tori, aita, Foruria andereñoaren limonadea.

KAPITAINA- Eskerrik asko, panpoxa. *(Foruria andereñoari)* Orduan, Foruria andereñoa, zure osaba apaiza zen. Eta gurasoak?

FORURIA- Ez nitun ezagutu. Gerrak eraman zitun. Ni elizan ikasiya naiz, nere osabakin. Apezpikua zan eta santu bat, kapitain jauna. Eta eskertzen diyot Jaungoikoari hura bere altzora garaiz eaman izana! Ezin izango zitun jasan gaur eguneko zabarkeriya eta gordinkeriya.

ARNALDO- Oso ondo esana. Zabarkeria besterik ez dago-ta. Jende gehienak oso portaera eta lexiko baldarra dauka. Manera onak ez daude modan eta klase pixka bat dugunok bazterrean geratzen ari gara. Eta zer esan dotoreziari buruz? Gorbata bereziren bat edo markako zapia janzten baduzu lepo inguruan, hor entzun behar duzu betiko leloa: “Begira marikoi horri”. Memeloak! A, eta marikoi... manera onez ari garela, kontatu dizuet zer gertatu zitzaidan dendan aurreko ostiralean?

FORURIA- Ez, Arnaldo, neri ez didazu kontatu.

ARNALDO- Ez? Ba, entzun. Hamarrak laurden gutxi ziren, gutxi gorabehera. Zabaldur berria nuen denda eta teontziei hautsa garbitzen ari nintzen... —Badakizu, Foru, nola zikintzen zaien muturra— Eta halako batean han agertu zen LARA GIL, ilegorri hori, badakizu, askotan aipatu dizut, bai Jainkoak munduan jarri omen zuena ar guztiei gustua emateko...

KAPITAINA- *(Foruria andereñoari, whiskia emanetz)* Hemen duzu zure limonada, Foruria andereñoa.

FORURIA- Eskertuta dago. Oso detaile polita!

*(KAPITAINA lehen eserita zegoen aulkira doa. Baina orain aulki kulunkaria dago)*

ARNALDO- Ba, han sartu zen, pitxer txinatar zoragarri bat zekarrela, aurreko astean saldu niona merkealdi prezioan. Esan zidan urtebetetze opari bat egiteko zela. Haren "osaba" zaharrak, edo auskalo nork, 80 urte betetzen omen zituen. JA! Badakit nik zer espero duen "mari-purtzil" horrek bere "osaba zaharrarengandik": hil aurretik bera izendatzea oinordeko bakarra.

*(KAPITAINA aulki kulunkarian esertzen da)*

KAPITAINA- Zer da hau? *(Altxatu egiten da ziztu bizian)*

CAROL- Zer dekozu, aita?

KAPITAINA- *(Sinistu ezinik)* Hau aulki kulunkaria da! Eta lehen ez zegoen hemen.

*(BERNAT sartzen da pozik, lehen eraman duen Regente aulkietako bat dakarrela. Gelditu egiten da. Aulkia ukitu eta nahastu dela konturatzen da. Irten egiten da berriro. Berehala itzultzen da bere aulki zaharretako bat dakarrela. Telefono ondoan uzten du, Arnaldoren taburetea zegoen tokian)*

ARNALDO- *(Foruria andereñoari)* Ba, begira, berak gazte-itxurak egiten ditu, baina berrogeita hamarretik gora ibiliko da. Bernik ezagutzen du, eta bat dator nirekin... gauza gehienetan bezala. *(Altxatu eta mahaian bermatzen da istorioari indar handiagoa emateko)* Benetan, ikusi behar zenuten: ilea motots batean bilduta, Audrey Hepburn-en estilora. Eta horrek primeran ematen dio neska gazte bati, baina berari... mesedez, buru gainean kalabaza-souffle bat zeukala ematen zuen-da.

*(BERNATek sofa altxatzen du ezkerraldetik. FORURIAk, bertan eserita baitago, sustoa hartzen du mugimendua somatzean)*

FORURIA- Aaaaa!

ARNALDO- Horixe bera, Foru. Ni ere garrasika hasiko nintzen. Baina gizon prestua naizenez...

*(BERNAT lanpara hartzera abiatzen da)*

Bueno, ba, begira geratu zitzaidan gorrotoz beteta, eta esan zidan bere harpia ahotsarekin: "Calonge jauna, engainatu egin nauzu".

*(KAPITAINA aulki kulunkarian esertzen da berriro)*

FORURIA- Ez!

ARNALDO- Bai. Hala esan zidan: “Engainatu egin nauzu”.

*(BERNATEk talka egiten du eskulturarekin eta sekulako zarata ateratzen du. CAROLEk ere zarata egiten du edariekkin, Berniri laguntzeko asmotan)*

*(Caroli)* Egon geldi! Hizketan ari naiz-eta!

CAROL- Barkatu, sentiduten dot.

ARNALDO- *(Garrantzirik eman gabe, bere istorioarekin jarraitzen du)* Ba hori. Eta nik esan nion: “Lara andereñoa, zertan oinarritzen zara ni horrela iraintzeko?” Eta berak: “Kasualitatez, Casa Antoniora eraman dut pitxer hau, iritzi... profesional bat izateko.

*(BERNIk lanpara hartzea lortu du, baina tulipa erori eta lanpara zegoen tokian geratu zaio)*

Eta esan didatenez, pitxer hau ez da ez txinatarra, ez berezia. Aurreko mendean egindako imitazio kaxkarra omen da”. “A? Hori esan dizute?”, galdetu nion nik. Eta berak: “Bai”. Eta, jakina, izugarri haserre banengoen ere, lasaitasunari eutsi nion, ikastetxe pribatuan ikasitakoa bainaiz. Eta azkenean esan zidan: “Itzulidazu nire dirua”.

*(Lanpararen kablea aulki kulunkarian kiribildu zaio. BERNIk tira egiten du kablea askatzeko asmotan. Aulki kulunkaria botatzen du lurrera, baita kapitaina ere. Kapitainak ez du ezer ulertzen. KAPITAINA eta BERNI lurrean aulki kulunkariarekin bueltaka)*

FORURIA- Lotsagabea halakoa! Eta zuk zer egin zenuen?

ARNALDO- Hamarreraino kontatu eta esan nion: “Lehenengo eta behin, nire bezeroetako inork ez du sekula atrebentziarik hartu nire zintzotasuna zalantzan jartzeko. Eta bigarrenik, Antonio hori ezjakin hutsa da, zu tentela eta inozoa zaren bezala”.

FORURIA- Hori da hitz egitea, Arnaldo!

ARNALDO- Zer esan ez zekiela geratu zen, eta mototsa jaitsi eta guzti egin zitzaion. Eta nik dirua eman nion, eta pitxerra eskuetatik kenduz esan nion: “Hobe zenuke dirua estetika ebakuntza on batean gastatu, premia latza duzuta. Eta ez zaitez sekula nire dendan berriz sartu; bestela, udaltzaingoari deituko diot, eta ez ditut ondorioak nire gain hartuko.

CAROL- *(Bi baso eskuan)* Calonge jauna, oso atsegina zara. Hamen dekozu zure gin-tonika limagaz. *(Limonada ematen dio)*

*(BERNI konturatzen da tulipa galdu duela. Bila hasten da)*

ARNALDO- *(Basoa hartzen du)* Astakilo samarra izan nintzen, badakit. Baina sorgin horrek merezi zuen.

CAROL- *(Deituz)* Aita! Nun zaoz?

KAPITAINA- Hemen naiz.

CAROL- Hamen dekozu whiskia.

KAPITAINA- Eskerrik asko, panpoxa.

ARNALDO- Ilegorri zikina! Ze demontre irakatsiko dit niri horrek portzelanari buruz.

FORURIA- *(Kapitainari)* Aditua zara portzelana kontutan, kapitain jauna?

KAPITAINA- Pixka bat, baina ez oso. Portzelana txinatarrak maite ditut. Batez ere, koloreengatik. Kolore ederrak lortzen dituzte. Hona sartzean ikusi dudana estatua, esate baterako, izugarri ederra da.

*(Bernat zur eta lur geratzen da: Budarekin gogoratzen da)*

ARNALDO- Ze estatuaz ari zara, kapitain jauna?

KAPITAINA- Hor zegoenaz. *(Okerreko norabidea seinalatuz)*

ARNALDO- Nik dakidala, Bernik ez dauka portzelana txinatarrik...

CAROL- *(Eten egiten dio)* Eta oin, basoa eskuen dekogunez guztiok, topa dagigun nire aitari bidai ona desietako! Aitak haizea aldeko euki daiala beti. Txin-txin.

FORURIA- Txin-txin. Ni ere bat nator desiyo horrekin.

*(BERNIK, lanpara eskuan duela, Buda aurkitu du. Arnaldoren gabardina hartzen du sofa gainetik, eta Buda estaltzen du gabardinarekin. Tulipa bila jarraitzen du)*

KAPITAINA- Eskerrik asko, panpoxa. Hunkitu egin nauzu. Benetan. *(Trago bat hartzen du)* Baina hau ginebra da-ta!

ARNALDO- Eta hau limonada.

FORURIA- Orduan ni... Ai ama! Baso hontan alkohola dago-ta. Ene! *(Inork ikusten ez duela aprobetxatuz, whisky-tragoa hartzen du)*

ARNALDO- *(Foruria andereñoari)* Foru, mesedez, aldatuko didazu basoa? Zurean whiskia dago eta nirean limonada. Kapitain jauna...

KAPITAINA- Hemen naiz.

ARNALDO- Foru.....

*(Kapitainak gin-tonika pasatzen dio Foruri. Arnaldori limonada hartzen dio. Eta Arnaldok Foruriaren whiskia hartzen du)*

FORURIA- Eskertuta dago.

ARNALDO- Orain bai. Topa egin dezagun.

*(BERNIK, leher eginda, tulipa topatu du azkenean. KAPITAINAk edaria jaurtitzen du ahotik BERNI bere parean pasatzen den unean. Busti egiten du)*

KAPITAINA- Limonada da. Ezin dut agoantatu iluntasun hau minutu bat gehiago.

*(BERNIK tulipa aurkitu du. KAPITAINA metxeroa poltsikotik atera eta pizten saiatzen da, haserre)*

CAROL- Aita, mesedez!

KAPITAINA- Eztanda egiten badugu, eztanda egingo dugu. Honek ez dauka ez hanka ez buru.

*(Azkenean, lortzen du metxeroa piztea eta BERNI topatzen du aurrez aurre. BERNIk lanpararena egiten du)*

Ze arraiotan ari zara?

BERNAT- *(Putz eginez itzaltzen du metxeroaren sua)* Ez izan burugabea, nire kapitaina! Ofizial on baten lehen araua: ez jarri alferrik soldaduak arriskuan.

KAPITAINA- Ez izan lotsagabea. Non dago linterna?

BERNAT- Ba... "txinoa" itxita dago.

ARNALDO- Ezin duzu "txinora" joan da etorri hain denbora laburrean. Ezin duzu.

BERNAT- Ba, ikusten duzu: joan da etorri naiz.

FORURIA- Baina, Milla jauna, zubiyaz bestaldean dao-ta.

BERNAT- Premia dagoenean, deabruak hegalak ematen dizkizu. *(Kanpora doa lanpara eramanez)*

KAPITAINA- *(Bernat oraindik alboan daukala pentsatuz)* Hemen zerbait arraroa gertatzen ari da. Begira, Bernat, nik ez dakit ezer portzelanari buruz, baina gizakiak ezagutzen ditut. Eta gai naiz gezurti bat ezagutzeko egun-argiz eta ilunpetan.

CAROL- Aita!

KAPITAINA- *(Berni egon uste duen lekurantz hitz eginez beti)* Ez dut zure hitza zalantzan jarri nahi. Beraz, frogaidazu, nik sinisteko moduan, ditzosozko denda horretara joan zarela. Konforme?

CAROL- *(Konturatu da Berni ez dagoela han, eta ahots gora deitzen dio)* Berni, aitak deitu in deutsu.

KAPITAINA- *(Caroli)* Zertara datoz garrasi horiek?

CAROL- Berni, kasu in aitari.

BERNAT- (*Atean agertzen da arnasestuka*) Bai, orain erantzungo diot. Arrazoi guztia daukazu. Erantzun egokia bilatzen ari nintzen.

KAPITAINA- Eta?

BERNAT- Ezer ez. Erabat ados nago zurekin. (*Ez daki zertaz ari den*)

CAROL- Zer?

BERNAT- Oso iritzi interesgarria, eta mundu guztiak ez luke horrela pentsatuko. Oso ohar egokia zurea.

KAPITAINA- Aizu, gazte, zer ari zara, pailazoarena egiten?

BERNAT- (*Oso adeitsu*) Ez, baina nahi baduzu, egingo dizut.

ARNALDO- Giroa gaiztotzen ari da, ezta?

CAROL- Gaiztotzen eta tristetzen.

KAPITAINA- Lasai, panpoxa, nik konponduko dut hau. (*Nazkatuta*) Nire alaba gezurti ziniko batekin ezkontzeko baimena emango dudala uste baduzu, oso oker zaude.

ARNALDO- (*Harriturik*) Ezkondu!

CAROL- Bai, intentziño hori dekogu.

ARNALDO- (*Bernati*) Zu, Berni, eta andereño hau?

BERNAT- (*Xuxurlatuz*) Bai...

CAROL- Esaten dan moduan, nobioak gara. Bueno, Aitak baimena emoten badeusku.

ARNALDO- Ondo! Oso ondo! (*Gero eta haserreago Bernik ez diolako ezer esan*) Ederra sorpresa!

BERNAT- Sekretuan gorde dugu.

ARNALDO- Horixe sekretuan. Eta noiz hasi da hau?

BERNAT- Duela hilabete batzuk.

ARNALDO- Artista zara disimulatzen.

BERNAT- (*Urduri*) Espero dut ulertuko duzula, Arnaldo.

ARNALDO- Baboa izan naiz!

BERNAT- Esateko asmoa neukan, benetan. Zuri bakarrik kontatu nahi nizun.

ARNALDO- Eta zergatik ez didazu kontatu?

BERNAT- Ez dakit. Beti pentsatzen nuen: “Bihar kontatuko diot”.

ARNALDO- Eta “bihar” gaur izan da. Baina ez didazu zuk kontatu. Bizilagunak izan gara besterik ez, eta ez daukazu inolako obligaziorik niri zure gauzak kontatzeko. Uste nuen zerbait zegoela gure artean, baina oker nengoen, garbi dago.

BERNAT- Mesedez, Arni. Ez zaitetz histeriko jarri.

ARNALDO- Arnaldo Calonge gogoak ematen dion bezala jartzen da.

BERNAT- Mesedez, Arnaldo, ulertu behar duzu...

ARNALDO- *(Oihuka)* Ez duzu besterik esan beharrik! Ea ikasten dudan behingoz hemen ez dagoela lagunekin fidatzerik.

*(FORURIA andereñoa, urduri, altxatu egiten da eta haztamuka, edariak dauden lekura abiatzen da.*

CAROL- *(Adeitsu eta maitekor, Arnaldori)* Arnaldo, bene-benetan. Ez deusogu inori esan. Inori bez.

KAPITAINA- Hobe isiltzen bazara, panpoxa. Ez dut batere garbi ikusten zer gertatzen ari den hemen.

BERNAT- *(Kapitainari)* Txarto egin dugu dena, jauna. Nire errua izan da. Sentitzen dut.

FORURIA- *(Edarien artean haztamuka)* Osabak beti esaten zuen: “Huts egitea gizakiari dagokio. Barkamena ematea, berriz, Jaungoikoari”.

*(Azkenean aurkitzen du ginebra-botila. Hartu eta tragoxka bat edaten du)*

CAROL- Gura dozu lagundutea, Foruria andereñoa?

FORURIA- Ez, eskerrik asko, moñoña. Aurkitu det limonada. Beste bat hartuko det. *(Beste tragoxka bat hartuz)* *(Berniri)* Atrebentziya ez bada, Milla jauna.

BERNAT- Kontrakoa, hartu nahi duzun guztia.

FORURIA- Eskerrik asko, maittia.

KAPITAINA- *(Berniri)* Begira, ez dut kontuan hartuko zure portaera xelebrea, baina ulertu behar duzu nik izugarri maite dudala nire alaba, eta horregatik frogatu behar didazu gai zarela berak merezi duen bezala zaintzeko. Bidezkoa da, ezta?

CAROL- Zelan ez nau zainduko, aita. Eskultore famatu ingo da. Bost urte barru, Miguel Angelen emaztearen moduan sentiruko naz.

ARNALDO- *(Fede gaiztoz)* Miguel Angelek ez zuen emazterik izan, sekula!

CAROL- *(Haserre)* Zelan ezetz?

ARNALDO- Ez, haren joera “afektiboek” beste norabide bat zeukaten.

CAROL- A, bai? Ez nekian, Calonge jauna. (*Mihia ateratzen dio*)

BERNAT- (*Arnaldori*) Arni, sentitzen dut min eman izana.

ARNALDO- Oker zaude. Mina ahal duenak ematen du, ez nahi duenak.

BERNAT- Badakit mindu zaitudala. Mesedez, barkaidazu.

CAROL- Arnaldo, ahiztuiozu. Haserrealdiak oso zatarrak dire. Eta ganera seguru nao gu danak lagun haundiak izango garela.

ARNALDO- Ba, ni ez nago hain seguru. Zaila izango da bakeak egitea halako sugedorriarekin. (*Bernirengatik*)

FORURIA- (*Arnaldori*) Gogoratu: “Huts egitea gizakiari dagokio. Barkamena ematea, berriz, Jaungoikoari”.

KAPITAINA- (*Haserre, Foruria andereñoari*) Ez errepikatu gauzak, andereño.

(*Une horretan, CERES sartzen da. Berniren maitalea da. Hogeitaka urtekoa. Guapa, bizkorra, alaia eta bihurria. Hitzik esan gabe sartzen da etxean*)

CAROL- (*Arnaldori*) Berni ez da sugedorri bet, artista haundie da. (*Berniri*) Ezta, laztana?

BERNAT- Bai, maitea. (*Carolek musu zaratatsu bat bidaltzen dio Bernati, Ceres harrituaren aurrean. Bernatek beste bat bidaltzen dio Caroli*)

CAROL- (*Arnaldori*) Momentu egokie da dana ahiztu eta barkatuteko.

FORURIA- “Huts egitea...”

KAPITAINA- (*Eten egiten dio*) Ixo!!

ARNALDO- (*Caroli*) Barkatuteko? Ez dakit, hau oso gogorra da.

CAROL- Mesedez. Eta oin beste gin-tonik bat ipiniko deusut, limagaz. Neuk be hartuko dot beste bat, zuri konpainia iteko.

(*Edari-mahaira abiatzen da*)

ARNALDO- (*Altxatu egiten da*) Konforme. Baina ez nago oso konbentzituta...

CAROL- Hamen nabil, nire maitasun guztiagaz gure gin-tonika ipinten limagaz...

ARNALDO- Eskerrik asko. (*Carol aldera doa. Eta, Carol delakoan, Ceresi ematen dio baso hutsa*) Plazer handia izango da niretzat edaria halako neska ederrarekin konpartitzea.

FORURIA- (*Beragatik esan duelakoan*) Eskerrik asko.



CAROL- Baie, oindiño ez nauzu ikusi-ta.

ARNALDO- Baina seguru nago. Bernik moko fina izan du beti. Berak, emakumeak bilatzeko. Eta nik, berriz, portzelanak.

*(CAROLek baso ginebraz betea ematen dio CERESi. Honek edan egiten du, eta ARNALDORI pasatzen dio baso hutsa. ARNALDOK basoa hartu eta sofan esertzen da)*

BERNAT- *(Arnaldori)* Arni, Caroli esan diozun hori... *(Sofa aldera doa)*

CAROL- Ez zaitetz kokolo izan, laztantsu. Ez lotsatu. Lore politte bota deutsu.

*(BERNI, CERES eta ARNALDO sofan eserita daude, ordena horretan ezkerretik hasita. Hankak gurutzaten dituzte, hirurek batera)*

CAROL- Mesanotxian dekozu froga: oin dala urte bi ibili zintzan neska horren argazkie. Polite iruditu jata. *(Ceresek poz-pozik begiratzen dio)* Bastante arrunte, hori bai. *(Ceresek haserre begiratzen dio)*

ARNALDO- Ceresengatik diozu, ezta?

CAROL- A, zuk ezetu zenduan?

ARNALDO- Jakina. Afera luzea izan zen. *(BERNIK ukondo-kolpe bat ematen dio CERESi, Arnaldo delakoan. CERESek ARNALDORI ematen dio beste kolpe bat ukondoarekin)*

CAROL- A, bai?

ARNALDO- Bai, bihotza. Baina, agian, gehiegi hitz egiten ari naiz.

BERNAT- *(Arnaldori)* Ez, ez. Lasai egon. Dena kontatu diot Caroli.

*(BERNIK beste kolpe bat ematen dio CERESi, baina indartsuagoa. CERESek ARNALDORI ematen dio beste bat)*

Dena dela, Arni, ez dut ulertzen zergatik esaten duzun hiru hilabete denbora luzea dela.

*(Ceresek sutan begiratzen dio gezurragatik. Arnaldo, zur eta lur)*

CAROL- *(Arnaldori)* Zelangoa zan Ceres hori?

ARNALDO- Ba...

BERNAT- *(Ceresen belarrira, intentzio handiz)* Ez zara oso ondo gogoratuko, ezta, Arni?

ARNALDO- *(Ceresen belarrira)* Zer dela eta ez naiz gogoratuko?

BERNAT- Ba, bi urte pasatu direlako, eta ahaztuta izango duzu, seguruenik.

ARNALDO- Bi urte?

BERNAT- Bai, bi urte.

*(BERNik ukondo-kolpe bat ematen dio CERESi, eta honek ARNALDOri. Kolpe indartsuaren ondorioz, ARNALDO lurrera erortzen da basoa eskuan duela)*

ARNALDO- *(Altxatu egiten da. Prakak astintzen ditu. Haserre, Berniri)* Ba, begira, oso ondo gogoratzen naiz. Ceres ez da erraz ahazteko moduko emakumea. *(Eseri egiten da berriz)*

CAROL- Guapia zan, ala?

ARNALDO- Ez, ez. Nik kontrakoa esango nuke. Gainera, oso tuntuna zen.

BERNAT- Hori ez da egia!

ARNALDO- Nire iritzia da.

BERNAT- Ba, orain arte ez didazu inoiz iritzirik eman.

ARNALDO- *(Ceresengana makurtuz)* Zuk ez didazulako inoiz iritzirik eskatu. Baina zure emaztegaiak eskatu didanez, esango dizut: Ceres itsusia zen. Hortz horiak eta zorrotzak zeuzkan, marrazoek bezala. Eta haren azalak elefantearena gogorarazten zidan.

BERNAT- Ceres ez zen halakoa.

ARNALDO- Bai, bazen. Primeran gogoratzen naiz. Haren azalak horma bat ematen zuen gotelez pintatua.

FORURIA- Arrazoi guztiya dezu, Arnaldo. Nik ez nun askotan ikusi, baina gogoan det haren azala. Gris kolorekoa, eta oso zakarra. Zer ikusirik ez dontzeila gazteek izaten duten azal leunakin, oaindikan gelditzen bada dontzeilarikan, noski.

*(CERESek tenis-partida batean bezala jarraitu du Berniren eta Arnaldoren arteko elkarrizketa)*

ARNALDO- *(Foruriari)* Hori da. Oso zakarra.

FORURIA- Eta granuak zeuzkan.

ARNALDO- Pila bat. Granoz beteta zegoen.

BERNAT- *(Altxatuz)* Hau lotsagarria da.

ARNALDO- Badakizu ez zitzaidala gustatzen, Berni. Azkarregia zen.

FORURIA- Eta astuna. Bohemio ezin astunagoa.

ARNALDO- *(Bernati)* Egia esatea nahi baduzu, nire ustez, mari-jakintsu hutsa zen.

CAROL- *(Arnaldori)* Ze esan gura dozu, harrotxue zala, bere izena moduen? *(Ceres aho-zabalik geratzen da)* Seguru baietz. Argazkian oso gona estua zeroan eta blusa zatarra eta horterue, errebentetako puntuen. Marilyn erdipurdiko bet!

*(Barre egiten dute guztiek, BERNIk gehienbat. CERESek zaplazteko bat ematen dio)*

BERNAT- Ai!!

CAROL- Zer dekozu, laztantsu?

FORURIA- Ondo al zaude, Milla jauna?

BERNAT- *(Haserre, Arnaldori)* Arnaldo, ez dauka batere graziarik. Baina ze arraio gertatzen zaizu?

*(CERES altxatu egiten da, alde egiteko asmotan)*

ARNALDO- Niri?

BERNAT- Kapitaina behintzat ez da izan.

KAPITAINA- Ez naiz izan "zer"?

*(Bernatek, haztamuka, ipurditik heltzen dio Ceresi. Ukitu orduko ezagutzen du)*

BERNAT- *(Izututa)* Ceres!

*(Ceres Bernatengandik aldentzen saiatzen da. Bernat haren bila hasten da)*

KAPITAINA- Zer esan duzu?

BERNAT- Ceres gogoratzen ari nintzen, jauna. Zuek txorakeria asko esan duzue. Ceres samurra eta zoragarria zen. Eta zuk, Arnaldo, oraintxe esan duzu moko fina dudala emakumeekin.

CAROL- *(Bernati)* Eta zuk lehen esan dozu Ceres espartzua bezain leuna zala.

BERNAT- Hori esan dut? Ez dut uste.

*(CERESek edari-mahaira iritsi eta vodka-botila hartzen du CAROLI buruan kolpe bat emateko)*

CAROL- Bai. Zelangoa zan preguntau deutsudanean.

BERNAT- *(Etsita, Carolengana doa)* Bai, bai. Esan dut. Nahastu egin naiz.

*(CERES BERNI jotzen saiatzen da)*

CAROL- A, bai?

*(BERNIK CERESekin topo egiten du. Besarkatu egiten du. Musu ematen dio eta CERES lasaitu egiten da)*

CAROL- *(Bernati)* Eta oin zer eta “samurra eta zoragarria” ei da.

BERNAT- *(Ceresekin besarkaturik jarraitzen du)* Bai, batzuetan oso samurra da.

CAROL- Gitxitan izango da, ezta?

BERNAT- Ez hain “gitxitan”.

*(BERNIK eskailera aldera eramaten du CERES)*

CAROL- Zer esan gura dozu, Berni? E, zugaz nabil berbetan!

BERNAT- *(Arnaldoren atzean dago. Arnaldo mahai txikian eserita dago. Ceresi, ahopeka)* Kontatuko dizut dena. Igo gelara eta itxoin han.

ARNALDO- *(Harrituta, berarekin ari delakoan)* Orain? Momentu egokia dela uste duzu?

BERNAT- Hara, falta zena! Ez naiz zurekin ari.

CAROL- *(Bernati)* Zer diñozu?

ARNALDO- *(Caroli)* Carol, uste dut Bernik zu bere gelara igotzea nahi duela. Eta imajinatzen dut zertarako...

KAPITAINA- Konspiratzen jarraitzeko, seguru.

FORURIA- O, kapitain jauna! Zuk ahaztuta dakazu maitasunaren hizkera. Nere osabak ziyoenez...

KAPITAINA- *(Foruriari)* Baina isilduko al zara behingoz?!

*(BERNIK eta CERESek musuka igotzen dituzte eskailerak)*

FORURIA- *(Kapitainari jaramonik egin gabe)* “Bide guztiek maitasuna dute helmuga”.

KAPITAINA- *(Foruriari)* Zure osaba txotxolo hutsa zen, zu bezala. Eta barkatuko didazu.

*(CAROL CERESen eta BERNIren atzetik doa eskaileretatik gora. Hirurak itsumustuan)*

CAROL- *(Ahopeka)* Zer pasetan jatzu, laztana? Zeozer txarto doia? Ez dozu lortu muebleak aldatutea?

*(Biak ahopeka)*

BERNAT- Ez zait ezer gertatzen. Dena aldatu dut, sofa izan ezik. Baina estali egin dut.

CAROL- Piztuko doguz pospoloek, orduen?

BERNAT- Bai. Alegia, ez!

CAROL- Zergatik ez?

BERNAT- Ba... ezin delako.

CAROL- Zergatik gura dozu ni kuartora joatea?

BERNAT- Ez dut "gura". Gauza bakarra nahi dut: hemendik alde egitea!

CAROL- (*Minduta*) Oso ondo! Zantarra baino zantarragoa zara.

(*CAROL jaitsi eta sofan esertzen da, Arnaldoren aldamenean. CERES eta BERNI logelara igotzen dira*)

BERNAT- Ez nuen hori esan nahi. Barkatu, maitea.

KAPITAINA- (*Bernati*) Esango didazu ze arraiotan ari zareten hor goian?

BERNAT- (*Kapitainari*) Lehen iruditu zait linterna bat zegoela ohe azpian. Nire kapitaina, hartzazu beste kopa bat.

(*BERNI eta CERES logelan sartzen dira*)

KAPITAINA- Nola beste bat? Oraindik ez dut batere hartu-ta.

FORURIA- (*Altxatuz*) O, gure kapitain gixajua! Neonek jarriko dizut.

KAPITAINA- Ez, eskerrik asko. Neronek prestatuko dut. Ekarriko dizut beste limonada bat?

FORURIA- (*Azkar*) Ez, eskerrik asko, kapitain jauna. Nere osabak beti esaten zidan: "Ana Isabel, praktikatu behar dezu!"

(*FORURIA eta KAPITAINA edari-mahaira doaz. CERES eta BERNI ohean daude*)

CERES- Orduan, hau da zita bat "itsu-itsuan" ittia? Esango tazu zer pasetan dan hemen?

BERNAT- Ezer ez. Jorge Ragner etxera etortzekoa da gaur gauean nire eskulturak ikustera, eta argirik gabe gaude.

CERES- Eta hori da kakanahaste guzti honen arrazoia?

BERNAT- Orain ez da une egokia gauzak argitzeko.

CERES- Zein da memela hori, (*Carolen ahotsa imitatuz*) "laztantsu"?

BERNAT- Lagun bat baino ez.

CERES- Ba, zeoze gehixago emoten dau.

BERNAT- Carol izena du eta neska maitagarria da. Lagun onak egin gara zu atzerrian zenbiltzan bitartean.

CERES- Oso onak?

BERNAT- Onak, besterik gabe.

CERES- Eta haren aitxa?

BERNAT- Kapitaina Ragner jauna ezagutzera etorri da.

CERES- Berni, ze esan gura zoztazun telefonoz?

BERNAT- Begira, ahaztu galderak eta zoaz lotara. Eta bihar zure etxera joan eta dena kontatuko dizut.

CERES- Ez dotsut sinisten.

BERNAT- (*Besarkatu eta musu ematen dio*) Mesedez, maitia, mesedez!

KAPITAINA- (*Whiskia prestatuz*) Azkenean! Bikoitza hartuko dut. (*Foruriari*) Aurkitu duzu limonada, Foruria andereñoa?

FORURIA- (*Baso bat bete ginebra zerbitzatuz*) Bai, eskerrik asko, kapitain jauna.

KAPITAINA- Galdera da Ragner jauna etorriko den ala ez. Hemen behar luke orain dela ordu-erdi luze.

ARNALDO- Millonarioak berandu iristen dira beti. Hala dagokie.

FORURIA- Nik beti imajinatu ditut berandu heltzen eta azal leun-leunakin.

CAROL- Berni be berandu dabil.

ARNALDO- Ceresekin egongo da "tete-a-tete" batean.

CAROL- Oso barregarrie, Arnaldo.

BERNAT- (*Ceresi*) Zu zara mundu honetako musu-emailerik onena.

CERES- Ez dakizu zelako hutsunea sentidu doten zu barik, Berni. Ez dot besterik euki buruan azken hilabete honeitan. Behar zaittut. Txarto egin nauen kanpora joanda.

BERNAT- Mesedez, Ceres, etzazu halakorik esan...

CERES- Berni, lau urte pasau doguz elkarrekin. Ezin dou guria bertan behera itxi abentura txoro bat izango bazan moduan.

BERNAT- Zergatik ez? Baina orain fida zaitez nitaz. Beste ordubete bat, besterik ez bada. Konforme?

CERES- Konforme. Biluztu eta hemen itxoingo 'tsut gogaikarri horreik gainetik kentzen dozuzen arte.

BERNAT- Hori kriston erokeria da!

CERES- Ba, niri sekulako ideia pentsetan jat. (*Ohean etzanarazten du*) Relajatu in bihar gara biok.

BERNAT- Ni oso relajatuta nago.

CAROL- Berni!

BERNAT- Ceres, gaur gauean ez. Orain ezin dizut azaldu, baina...

CERES- Gero azalduko deustazu... ohian.

BERNAT- Ezetz esan dizut!

CERES- Bixetako bat, edo ohia, edo behera bajau eta kristona organizauko 'tzut.

BERNAT- "Organizau"? "Kristona"?

CERES- Orduan berdin jatzu bajaten banaz.

CAROL- Berni!

BERNAT- (*Ceresi*) Bale. Itxoin hemen, baina isilik egon. (*Bere arterako*) Txantajista zikina! (*Atea zabaldu eta Caroli eskailera gainetik*) Bai, maitia?

CAROL- Ze iten dozu kuartuan?

BERNAT- Komunean begirutzen ari nintzen, maitea. Auskalo zer daukadan hemen gordeta.

KAPITAINA- (*Bernati*) Aizu, nire onetik atera nahi nauzu, ala?

BERNAT- Ezta pentsatu ere, nire kapitaina.

KAPITAINA- Jakizu, gazte, itsasoan "urakan kapitaina" deitzen didatela.

CERES- (*Kantatuz*) Kantetako desietan nago... (*Komunetik ateratzen da*)

BERNAT- (*Kantatuz*) Jo eta muturra txikituko dizut...

KAPITAINA- Baina, zer diozu?

CAROL- Berni! Zelan atrebiduten zara aitari holan berba iten?

BERNAT- Ni... ez nintzen zure aitarekin ari.

CAROL- Nogaz, orduen?

BERNAT- Inogaz ez. Nire buruarekin ari nintzen. Ez badut begiratzen nondik nora nabilen jo eta muturra txikituko dut.

KAPITAINA- Pitzatuta! Alaba, zure senargaia burutik jota dago erabat.

CAROL- *(Altxatuz. Bernati)* Zure kuartuan zeozer arraroe pasetan dabil. Eta ni gora noia zer dan ikusten. Aitu deustazu, Berni?

BERNAT- Carol, zure aitaren curriculumaren izenean, ez igo!

CAROL- Ez naiz zuk uste dozun bezain kokola. Ahotsan igerten jatzu zeozer ezkutatu gura dozunean.

BERNAT- Maitea, mesedez! Kapitainari ez zaio gustatuko zu ezkongabe baten logelan horrela sartzea. Hori ez da itxura andereño batentzat.

CAROL- Igo ingo naiz, Berni. Igoten nabil, Berni. *(Eskailerak igoz)*

BERNAT- Ni jaitsiko naiz. Eta kopa bana hartuko dugu guztiok.

*(Iberduero Argi Konpainiako Jorge Rafael partikularraren ahotsa entzuten da. Ate aurrean dago)*

JORGE RAFAEL- *(Offean)* Káixo? Miya jáuna?

*(Azentu argentinar oso markatua dauka. CAROL eta BERNAT zur eta lur)*

BERNAT- Ragner! *(Eskailera jaitsiz)*

CAROL- Ai ama!

*(BERNI ate aldera abiatzen da. CAROL haren atzetik doa. JORGE RAFAEL sartzen da, 40 bat urteko argentinar gozoa, kultua eta bizia. Antzeman zaio gizon zoriontsua dela. Pozik bizi da Europan, Iberduero Argi Konpainian lan eginez bada ere)*

JORGE RAFAEL- *(Etxean sartzen da)* Ez nintzela etorríko pentsátzen ari zinéten, ezta?

BERNAT- Ezta pentsatu ere! Badakit oso lanpetuta zabilzala eta eskertzen dizut gurera etorri izana. Ikusten duzunez, argirik gabe gaude.

ARNALDO- *(Bernati)* Ozenago hitz egin. Gorra da.

BERNAT- *(Oihuka Jorge Rafaeli)* Argia joan da! Ez da une egokia eskulturak ikusteko.

JORGE RAFAEL- Ez kezkatu. Nik lintérna bat eramáten dut béti.

*(Linterna atera eta denen aurpegiak argizatzen ditu. Beti bezala, eszena ilundu egiten da)*



CAROL- Azkenean, argi apur bet.

BERNAT- Ideia bikaina linterna ekartzea. Zertarako erabiltzen duzu, piezak aztertzeko? Aditua zara!

JORGE RAFAEL- *(Harriturik)* Adítua?

ARNALDO- *(Ahopeka, Bernati)* Ez dizu ulertzen! Ozenago hitz egin.

BERNAT- *(Arnaldori)* Arrazoi duzu. *(Garrasika, Jorge Rafaeli)* Aurkeztu egingo zaitut. Murua kapitaina.

*(Iltaran jartzen dira denak aurkezpenak egiteko. Denek garrasika hitz egiten diote eskua ematean)*

KAPITAINA- Ohore handia da niretzat, jauna.

*(Jorge Rafael gizajoak atzera egiten du oihuak eraginda)*

BERNAT- Murua andereñoa.

CAROL- Kaixo. Pozten naiz zuk holango interesa hartu izanaz. *(Bernaten eskuinaldean jartzen da)*

JORGE RAFAEL- *(Atzera egiten du berriz garrasiaren eraginez)* Oso atsegínak zaráte, ez nuen... Bueno, ez dáuka garrantzírík...

BERNAT- Nire bizilaguna, Arnaldo Calonge.

ARNALDO- Urte askotarako. *(Bernaten ezker aldean jartzen da)*

JORGE RAFAEL- *(Gortzen ari da)* Ai! Qué quilombo! *(Eskuarekin kolpe bat ematen dio belarriari)*

BERNAT- Beste bizilagun bat: Foruria andereñoa. *(Foruria andereñoak bi eskuetatik heltzen dio Jorge Rafaeli)*

FORURIA- Hemen hartu degu babes, ekaitza baretu bitartean, behintzat. *(Eskuak estutuz)* Bai esku leunak. *(Mozkorturik, erreberentzi barregarria egiten dio)*

BERNAT- Mesedez, Foruria andereñoa.

JORGE RAFAEL- Zuen baimenarékín: zergatik hitz egiten didázue garrasíka?

BERNAT- *(Arnaldori)* Gorra zela esan duzu.

JORGE RAFAEL- Ez naiz górra.

ARNALDO- Aldizkari batean irakurri nuen.

JORGE RAFAEL- Górra zen nire áita.

BERNAT- Asko sentitzen dut, jauna. Gaizkiulertua izan da dena.

ARNALDO- (*Lausengari*) Galdera bat: non erosi duzu *prêt-à-porter* polit hori?

JORGE RAFAEL- *Prêt-à-porter* hau?

CAROL- Bai, moderno-modernue, barri-barrie.

JORGE RAFAEL- Ez dúzue inoiz ikúsi? Berdina eramaten dúgu guztiok.

ARNALDO- A. Oso elkarte elitista da, ezta?

JORGE RAFAEL- (*Barrez*) Bueno, ez da erráza sartzéa. (*Guztiak barrez, broma delakoan*)

FORURIA- Nere osabak zioen: “Zailago da aberats bat jostorrazaren zulotik sartzea, gamelu bat zeruko atetik baino.”

ARNALDO- (*Ahopeka, Foruriari*) Foru, ahaztu zure osaba gamelua, mesedez.

JORGE RAFAEL- (*Linternarekin Bernaten estatua argituz*) Liluragarria! Begiratu dezáket?

BERNAT- Mesedez, horretara etorri zara-ta.

JORGE RAFAEL- (*Oso kontzentraturik, eskultura aztertuz*) Apárta!

BERNAT- Gizakion ezinegonaren bi alderdiak irudikatzen ditu: maitasuna eta gorrotoa. Biek bat egiten dute puntu berean. Ikusten duzu?

JORGE RAFAEL- Bístan da.

KAPITAINA- A, bai?

JORGE RAFAEL- Eshtá claro! Bi orratz háuek garbi adierázten dúte. Eskultúra hónek argia eta distíra isurtzen dítu. Artelána da, nire iritziz. Artelan bikáína.

ARNALDO- Bikaina?

KAPITAINA- (*Jorge Rafaeli*) Zer esan nahi duzu, gustatzen zaizula?

JORGE RAFAEL- Ashko. Zuri ez?

KAPITAINA- Ba... bai, bai, horixe. Asko, asko.

JORGE RAFAEL- Pozten naiz zugátik. Eskultúra xuméa da, baina ezinezkóa da pentsamólde arin baten gustukóa izatéa. Burutsúa bai, baina ez ínozóa. Eta batez ere, benetako indar morála islatzén-du. Ezin gauza béra esán eskultóre moderno askóren ingurúan. Zintzotasúna iradokitzén-du... Horreláko gútxi, bai jáuna!

FORURIA- (*Alkoholez gainezka*) Oso gutxi!

JORGE RAFAEL- Espero dut inor ez-aspertzéa nire iruzkinékin.

DENAK- Ez, ez, ez...

JORGE RAFAEL- Ez dáukat erremediórik: artelán-bat begien aurréan eduki eta hitz-jarió etengabéan murgiltzén-naiz.

CAROL- (*Oso koipetsu*) Aspertu? Zuk ez dozu inor aspertuten. Kontrakoa, nik behintzat gau osoa emongo neuke zuri aituten.

FORURIA- (*Jorge Rafaeli*) Hoi da hitz eittia, motel: mareatu ta dana in nauzu!

JORGE RAFAEL- (*Gero eta animatuago*) Baina ez níri éntzun, eta begiratu. Begiratu! Benéra ezazúe! Nik frustraziói handia sentitzén-dut burdinázko intzestu honen áita ez naizeláko.

CAROL- Zoragarrie.

FORURIA- Earra lana, Milla jauna.

ARNALDO- Eta ni jakin gabe jeinu baten ondoan bizi nintzela.

JORGE RAFAEL- (*Bernati*) Díru áshko irabazíko zenúen, ezta? Garésti ematen dúte.

BERNAT- Ba...

CAROL- Bai, oso garestiak!

JORGE RAFAEL- Honek, adibidez, zénbat balió-du?

BERNAT- Ehun...

CAROL- (*Eten egiten dio*) Bostehun mila!

JORGE RAFAEL- Pués, merkéa iruditzén-zait. Baina zer da merkea edo garestía artelán bati buruz hitz egitéan? Ezinezkóa da edertasunári prezioía jartzéa. Nola ebatzi ekuaziói-bat bi atálak errealítatea eta fantasía direnéan?

BERNAT- Arrazoi guztia dauka.

CAROL- Erosiko dozu? (*Bizkor-bizkor*)

JORGE RAFAEL- Nik?

BERNAT- (*Caroli*) Laztana, ez zabilta arinegi? (*Jorge Rafaeli*) Nahi baduzu, lan gehiago erakutsiko dizkizut. Estudioan dauzkat.

JORGE RAFAEL- Ez, eskerrik-ásko. Gaurkoz, gaindítuta dáukat poesiatasunáren kuóta. Nire arima asetuta dágo erábat.

FORURIA- Hara! Hori osabak esan zuen-da.

BERNAT- (*Etenaldia*) Tira, ba, ondo...

JORGE RAFAEL- (*Atzealdera biratzen du linterna*) Ondo...

BERNAT- Ondo, ondo...

CAROL- Ondo?

KAPITAINA- Ondo?

ARNALDO- (*Jorge Rafaeli*) Ondo. Baina, gustatzen zaizu, bai edo ez?

JORGE RAFAEL- Áshko.

KAPITAINA- Baina bostehun mila ordaintzeko?

JORGE RAFAEL- Noski... dirúrik edúkiko bánu. (*Barre egiten dute guztiek*)

ARNALDO- "Financial Times" egunkariak dioenez, dirutza handia daukazu, berrehun milioi dolarretik gora.

JORGE RAFAEL- Ja ja. Igandeko egunkariak ez-dáude oso ondó informatúta. Níre kóntu korróntearen azken laburpenéan jartzén-du: 3.500 (híru míya ta bostéhun) pezéta.

ARNALDO- Zer esan nahi duzu, erreka jo duzula?

JORGE RAFAEL- Ez. Ez dut inoiz edúki díru gehiágo.

KAPITAINA- Begira, jauna, badakit millonarioak oso eszentrikoak eta bromazaleak zaretela. Baina honek ez dauka graziazirik.

CAROL- (*Kapitainari*) Ixo, aita.

JORGE RAFAEL- Míyonarioak? Baina, nor úste dúzu ni naizéla?

KAPITAINA- Zeuk jakingo duzu nor zaren.

CAROL- (*Jorge Rafaeli*) Ragner jauna, txantxetan zabilz, ezta?

JORGE RAFAEL- Barkátu, baina hori ez da níre izéna.

BERNAT- (*Larri*) Ez?

JORGE RAFAEL- Ez. Segúru, gainera. Jorge Rafael Mayo naiz. Buenos Áiresen jaióa, 1950. (míya bederatziréhun da berrogéita hamargárren) urtean. Filosofían eta Ártearen Histórian lizentziatúa Sorbónan. Herri-álde honétara erbesterátu níntzen Vidélaren diktadúra garáian. Lanpóstu fínkoa dáukat Iberduéro Árgi Konpañían 1990 (míya bederatziréhun da laurogéita hámar) urteaz geróztik.

CAROL- Argi Konpainia?

FORURIA- Iberduero!

BERNAT- Zer esan nahi duzu, ez zarela...?

ARNALDO- Garbi dago ez dela. *(Berni ziplo erortzen da lurrera, konortea galdurik)*

JORGE RAFAEL- Baina, nor uste zenúten ni nintzéla?

ARNALDO- *(Sutan)* Baina, nola ausartu zara? *(Linterna hartzen dio)*

JORGE RAFAEL- *(Beldurturik, atzerantz egiten du)* Ni...

ARNALDO- *(Bultza eginez gelan barrena)* Lotsagabea! Azal lodia duzu, gizona! Hemen ari zara intzestuez eta poesiaz hitz egiten, eta zure lana argia konpontzea da.

KAPITAINA- *(Arnaldori)* Ados nago zurekin. *(Jorge Rafaeli)* Lotsagabe galanta eginda zaude zu!

JORGE RAFAEL- *(Harrituta)* A, bai? *(Kapitainak Arnaldori linterna hartu eta Jorge Rafaelen aurpegira zuzentzen du)*

KAPITAINA- Zu langile publikoa zara, eta hona etorri zara *(oihuka)* gorraren plantak eginez! Eta sekulako diskurtsoa bota diguzu gu baboak bagina bezala.

JORGE RAFAEL- Barkátu, baina zuek esan duzúe...

KAPITAINA- *(Eten egiten dio)* Ez erantzun. *(Bernati)* Milla, esaiozu nazkante honi nora joan behar duen bere lana egitera. *(Jorge Rafaeli ematen dio linterna)*

BERNAT- Argien koadroa etxeko sotoan dago. Inporta ez bazaizu...

JORGE RAFAEL- *(Larri)* Inpórta? Eshtamos locos! Ni argia ikustéra etorrí-naiz.

BERNAT- Hau ez da sinistekoa.

JORGE RAFAEL- *(Linternarekin sofa argizatzen du. Liluraturik)* A! Ze altzári zoragarria.

BERNAT- *(Sofa gainera oldartzen da)* *(Jorge Rafaeli)* Zergatik ez zoaz sotora behingoz?

*(Sofan etzaten da. Hainbat jarrera hartzen ditu, gorputzarekin estali nahian)*

JORGE RAFAEL- *(Nazkaturik)* Eshte... bien. Non dagó sotóa?

BERNAT- *(Caroli)* Laztana, lagundu sotora, ostia!

CAROL- Neuk?

KAPITAINA- *(Bernati)* Zuk ez dakizu portatzen gizon bezala, ala?

CAROL- (*Haserre*) Ez, aita, ez daki.

BERNAT- (*Sofan, bueltaka*) Lunbagoak jo nau. Normalean, ilunpetan luze hitz egiten dudanean gertatzen zait. (*Caroli, uler dezan*) Carol, sofa!

CAROL- (*Egoeraz jabeturik*) A, bai! (*Oso ezkitsu*) Laztana, lunbagoa barriro? Koittae. Lotu hor etzunde eta ez mugitu. Neuk lagunduko deutsot. (*Musu bat bidaltzen dio*) Mmm!

BERNAT- (*Musua bidaltzen dio berak ere*) Mmm!

ARNALDO- (*Sotorako aterantz doa*) Lasai, nik lagunduko diot. (*Atea zabaltzen du. Jorge Rafaeli*) Goazen behera, poeta.

JORGE RAFAEL- Edérki. (*Atetxotik sartzen da*) Agúr. Ártearen argía útzi behárdut, Zientziáren ilunpéak aztertzeó.

ARNALDO- Nahiko ergelkeria esan duzu. Segi!

JORGE RAFAEL- Barkátu, atéra egitén-zait. (*Pertsonaia hautsiz. Simple*)

(*Desagertzen da. Linterna eramaten du. Argiz betetzen da eszenatokia. Berni estudioan sartzen da. Foruria andereñoa sofán etzaten da*)

KAPITAINA- Nola liteke! Hau, beste garai batean, kareletik behera botako genuen, ahoberoa izateagatik.

CAROL- Ez dago eskubiderik. Oin kanpotik etorritako edozein ganorabakok gu baino gehiago dala uste dau. Normala, hamen kristo guztixak eitten dau berba ta berba kategoria teknikoei erreparau barik. Ezta, aita?

(*Bernik estudio barrura sartzen du sofa Foruria andereñoa bertan etzana dagoela konturatu gabe. Foruria andereñoak agur esaten du eskuarekin, bidaia luze bat egitera joango balitz bezala*)

(*Estudioko gortinek sofa ezkututzen dute, baita Foruria andereñoa ere. KAPITAINA, hitz egiten duen bitartean, sofa bila ari da eskuarekin, esertzeko asmotan. BERNIk eskailera txiki bat ateratzen du estudiotik sofa ordezkatzeko*)

KAPITAINA- Oso ondo esana, nire panpoxa. (*Esertzen saiatzen da*) Hau tripulazio bat da: ondo gobernatu behar da, eta diziplina ezarri, uler dezagun agintzen duena gure hobe beharrez ari dela. Emigranteen joan-etorri honek delinkuentzia baino ez dakar. Lotsagabez inguratuta gaude: ez dute integratu nahi, herriaren desoreka bilatzen dute. (*Esertzen saiatzen da bigarren aldiz*) Komunista arraioak. Jendilajea. Mugak itxi behar ditugu erabat. (*Azkenean esertzen da, Bernaten esku gainean. Bernati*) Baina, jakina zuri, “Milla jauna”, esan dudán guztia modaz pasata irudituko zaizu, ezta?

(*FORURIA andereñoa kantatzen hasten da*)

FORURIA- “Agur pekatarien kaia ta estalpea...”

BERNAT- Hau ez da erreala. Amesgaiztoa izaten ari naiz.

CAROL- Animo, laztana, dana konponduko da. Hamar minutu barru, argia bueltau eta benetako Jorge Ragner agertuko da. Asko gustauko jako zure lana eta 500.000 pezeta pagauko deusuz eskultura bakotzeko.

*(Ceresek logelako atea zabaltzen du. Oheko arropaz jantzita doa)*

BERNAT- *(Sarkastiko, Caroli)* Hartuko nuke nik pagotxa hori.

CAROL- Eta, orduen, etxe zoragarri bet erosiko dogu kostaldean eta zoriontsu biziko gara.

BERNAT- Behin betirako.

CAROL- Behin ezkondata, auzoa itxiko dogu.

*(Hori entzutean, CERES aho zabalik geratzen da. FORURIA kantatzen hasten da berriro)*

FORURIA- "Erruki, jauna. Kristo, erruki."

BERNAT- *(Urduri, Caroli)* Ixo.

CAROL- Zergattik isildu bihar naz? Nik ez dot hamen bizi gura. Nire ametsetako etxeak lorategia deko ta kolunpioak umeentzako.

BERNAT- *(Bere artean)* Eta mando bat zure aitarentzat. *(Caroli)* Ixo.

CAROL- Baina, zer dekozu?

BERNAT- *(Gorantz seinalatuz)* Jainkoek dena entzuten dute, maitea. Gau izugarri txarra pasa dut. Baina susmoa daukat txarrena etortzeko dagoela oraindik.

CAROL- *(Oso mainontzi)* Badakit, laztana, oso gau txarra euki dozu. Koittae. Baina gu biok danen kontra borrokatuko dogu alkarregaz. Ez doztie ardure jainko zahar eta nazkagarri horreek. *(Gora aldera oihu eginez)* Aitu doztazue? Ez doztie ardure!

*(Ceresek vodka-txorrota bat botatzen dio Caroli)*

CAROL- A.

BERNAT- Baina, zer duzu orain?

CAROL- Eurie iten dau.

BERNAT- Ez izan tentela!

CAROL- Bustita nao.

BERNAT- Baina, nola demontre egongo zara bustita.

*(Ceresek jarraitzen du vodka botatzen botilatik. Arnaldo ere bustitzen du)*

ARNALDO- A. Zer gertatzen ari da hemen?

KAPITAINA- Zertara datoz garrasi horiek? *(Vodka-txorrota bat erortzen zaio aurpegira)* A. Sabotajea!

BERNAT- *(Inspiraturik)* Itoginak ditugu. Ur-instalazioa puskatuta dago nonbait.

*(Ceresek kolpe bat jotzen du eskaileran botilarekin. Denak isildu eta gorantz begiratzen dute)*

ARNALDO- *(Bernati)* Ez esan jende gehiago daukazula etxean.

BERNAT- *(Inprobisatuz, bizkor)* Rosario andrea da, nire neskamea. Astelehen, asteazken eta ostiraletan etortzen da.

CAROL- Baina gaur zapatue da.

BERNAT- Bai, baina deitu zidan esateko ostiraletan ezin zuela eta zapatuan etorriko zela.

CAROL- Ta horren berandu ibiltzen da garbiketan?

BERNAT- Seietan zen etortzekoa.

KAPITAINA- Ba, hamaikak dira ia.

ARNALDO- Normala. Etxe honetan dagoen zikinkeria pilarekin...

KAPITAINA- Ikus dezagun zer gertatzen den hemen. *(Deituz)* Rosario andrea?

BERNAT- *(Ernegaturik)* Ez deitu, mesedez. Ez zaio gustatzen inork enbarazu egitea lanean ari denean. Hobe dugu bakean utzi eta kopa bat hartu.

KAPITAINA- Hasteko, ikus dezagun bera ote den ala ez. *(Deituz)* Zu zara, Rosario andrea? *(Garrasika)* Rosario andrea!

CERES- *(Ahotsa aldatuz. Kubatar azentuaz)* Sí. ¿Quién llamó?

BERNAT- Bera da. Baina, baina... Rosario andrea, zer egiten ari zara hor goian?

CERES- Sure dormitorio garbitzen, jáuna.

BERNAT- Ordu hauetan?

CERES- Ahorita mejor que nunca, jáuna. Badakit suri gustatzen dormitorioion usain garbia festa badaukásu.

BERNAT- Bai, bai, jakina...

KAPITAINA- Noiz iritsi zara, andrea?



CERES- Hace sólo minutu batzuk. Nik ez dut nahi molestatu zuei eta igo dormitoriora zuzen, beti bezala.

ARNALDO- Orduan, zu izan zara busti gaituena?

CERES- Ai, Dios mío! Barkatu, nik tropezatu kuboarekin eta ur zikina lurrean. Nola ez da ezer ikusten. *(Bernati)* Milla jauna, hau sure juegesito bat da? *(Eskailerak jaisten hasten da)*

BERNAT- Argia joan da, Rosario andrea. Konpontzen ari dira. Minutu batzuk barru argia izango dugu.

CERES- Ni asko pozten por usted, ¿o no?

*(Botila botatzen dio Bernati eta gelan sartzen da)*

BERNAT- Aizu, zergatik ez zoaz etxera? Bihar etorriko zara.

CERES- Bihar imposible! Zergatik mi pequeña Aldenira María dago oso malita...

BERNAT- Ulertzen dizut, baina...

*(Harengana doa mendeku hartu nahian, baina Ceresek saihestu egiten du)*

CERES- *(Errukirik gabe)* Es su barriguita. Dauka bulto bat ombligo azpian del tamaño de un pomelo.

ARNALDO- A ze nazka, mesedez.

CERES- Nik esan a mi Aldenirita: “Voy a casa del Milla jáuna. Duerme tranquilita. Mañana te llevaré al hospital para que te vean en la pantallita”.

BERNAT- Hobe izango duzu Aldeniritarengana bueltatzea, ezta? Berak zure premia dauka. Gainera, egia esan, amaitu duzu hemengo lana, ezta?

CERES- Zuk uste, jáuna?

BERNAT- Bai.

CERES- Badakit nola bukatu dena zuk etxean juerga badaukazu. Ematen du una caravana de gitanos. Lurra beteta de botellas vacías. Sostenes eta braguitas komunean. Eta Dios daki zer...

*(BERNik ahoa estaltzen dio eskuarekin. CERESek hozka egiten dio eskuan, eta BERNI belauniko erortzen da, isilpean sufritud)*

KAPITAINA- Zaindu zure hitzak, andrea. Dirudienez, ez zara konturatu andereñoak daudela zuri entzuten. Haien artean Milla jaunaren emaztegaia.

CERES- Emaztegaía?

KAPITAINA- Bai. Eta ni haren aita naiz.

CERES- O, Milla jáuna! Ze noticia ona! Zergatik ez esan niri?

BERNAT- Sorpresa eman nahi nizun.

CERES- Eta ni, tonta de mí, sospecharik gabe. Ze poza. Por favor, jáuna, ¿puedo darle un musu?

BERNAT- *(Belauniko jarraitzen du)* Ba, bai, bai, nola ez ba.

*(CERESek kaskarreko bat ematen dio BERNIri)*

CERES- Pozten naiz asko, por usted. Y por usted ere bai, emaztegáia.

CAROL- Eskerrik asko.

CERES- *(KAPITAINAri)* Y por usted, jáuna.

KAPITAINA- Eskerrik asko.

CERES- *(KAPITAINAren bila ari dela, Arnaldorekin nahasten da)* Usted izango da...

ARNALDO- Ama.

KAPITAINA- Ez, ama ni naiz. Ez, aita! Baina zer esaten ari naiz?

CERES- *(KAPITAINAri)* Ze poza de conocer al áita de la señorita Ceres.

KAPITAINA- La señorita Ceres? Ez dut ulertzen.

*(Ceresek mihia ateratzen dio Bernati. Bernat lurrean esertzen da. Etsita dago halako deskalabruaren aurrean. Amesgaiztoaren amaiera da)*

CERES- *(Caroli)* Oso ondo, señorita Ceres. Azkenean, lo ha conseguido lau urte ondoren.

BERNAT- Ez, ez, ez... Mesedez.

CERES- *(A Bernat)* Perdona si yo hitz egin demasiado. Baina lau urte denbora asko erabakitzeko, sobre todo gaur egun...

BERNAT- Rosario andrea, mesedez.

CAROL- Lau urte!

CERES- Bai, querida. *(Bere artean)* Incluso más. *(Caroli)* Eta menos mal Milla jáunak erabakia hartu, zergatik ya ikusten da el embarazo.

*(Carol, etsita, garrasika hasten da. Bernik belarriak estaltzen ditu)*

Asko tardatu, baina Milla jáunak beti-beti zu maite. Berak esan niri hemen hace una semana. *(Sentimendu handiz)* "Señora Rosario, para mí no cuentan las demás mujeres. Ceres es única y la quiero". "Oh", esan nik, "¿y qué pasa con

esa tal Carol de la que me hablaba usted?”. Eta berak: “Oh, ¿ésa? Es tan empalagosa como un merengue, dos chupadas y te hartas”.

BERNAT- Aaaa!

*(Isilune luzea gertatzen da. Ceres, egoera kontrolpean duelakoan, mahaian esertzen da botila jiratuz)*

KAPITAINA- *(Ahots-hari batez)* Lau urte esan duzu, andrea?

CERES- *(Bere ahotsarekin erantzuten du)* Bai, jauna, lau urte etxe hontan.

ARNALDO- Ahots hori ezaguna egiten zait... Ceres!

CAROL- *(Izututa)* Ceres!

BERNAT- *(Sorpresa hartu duenaren plantak eginez)* Ceres!

CERES- Zer, harrittuta, Berni?

KAPITAINA- Ez dut ulertzen zer gertatzen ari den hemen.

CERES- Badakitt. Etxe hau oso arrarua da, ezta? Eurixa itten dau sala barruan eta garbitzaile bat dao gabaz lan itten dauena eta momentu batetik bestera jaun honen maitale bihurtzen dana.

BERNAT- Ez pasatu, Ceres, ez pasatu.

CERES- Bueno, azkenean esan dozu zer sentiduten dozun. Nahiko gezur esan dozuz ja? Nahikoa umiliau zara? Nahiko barkamen eskatu dozu? Odolbakoa zara, Berni. Ez zauen nirekin ezkondu nahi eta horregattik onartuko dozu bikote merke hau? *(Caroli eta Kapitainari buruz ari da)* “Nancy irribarretsua” eta “Urakan kapitaina”.

CAROL- *(Oihuka)* Ezin dot gehiago. Aita, isildu ezazu.

KAPITAINA- Deabruaren izenean! Zer nahi duzu nik egitea? Nazkagarria da. Nola asmatu ditu aldrebeskeria horiek?

*(KAPITAINA Carol aldera doa, baina nahastu eta Ceresen eskua hartzen du)*

KAPITAINA- *(Ceresi, Carol delakoan)* Lasai, panpoxa. Emadazu eskua, aita zurekin dago. Kontrolpean daukagu dena. Konforme?

CERES- Seguru zaz zure alabian eskua hartu dozula, kapitaina? *(Ahopeka, kapitainari)*

KAPITAINA- Zer?! Ez da zure eskua, Carol?

CAROL- Ez, aita.

CERES- Hainbeste urte alabiakin batera bizitzen eta ez ezagutzia be. (*Isilunea. Kapitaina, ezeroso, Ceresengandik aldentzen da*) Ederto. Jolasteko ordua heldu da. Ia, asmakizun bat.

BERNAT- Bai, asmakizunetarako nago ni.

CERES- Ia asmatzen dogun zeinena dan eskua.

(*Erreakzionatu egiten dute guztiek, eta saiatzen dira beste toki batera joaten*)

ARNALDO- A ze txorakeria.

CERES- (*Arnaldori*) Nahixago dozu ahoa topetia eskuan orde.

ARNALDO- A ze nazka.

CAROL- Ze zantarra zaren!

CERES- (*Caroli*) Bai, “zantarra” naz, “laztantsu”. Mundu hontako zantarrrik zantarrena. (*Arnaldoren eskua hartu eta Carolenaren gainean jartzen du*) Zein da?

CAROL- Ez dakit.

CERES- Asmatu.

CAROL- Ez dakit, eta ez deuste ardura.

CERES- (*Carolén ahotsa imitatuz*) Ia, saiatu.

CAROL- Ez dozu lortuko ni engainadutea. Berniren eskue da. Seguru nao.

ARNALDO- Barkatu, baina hutsegin duzu. Ni naiz.

CAROL- (*Indar egiten du eskua askatzeko*) Hori ez da egie. Gezurretan zabilz.

ARNALDO- (*Eskua askatu gabe*) Ez. Nik ez dut gezurrik esaten.

CAROL- Bai!

ARNALDO- Ez!

CAROL- Aaaa!

CERES- (*Arnaldori*) Itxi. Oin zure txandia da, Arni. Hartu eskuman daukozun eskua.

ARNALDO- Ez zait batere interesatzen joko txatxu hau.

CERES- Bai, gizon. (*Arnaldoren eskua hartu eta Bernatenaren gainean jartzen du*) Zein da?

ARNALDO- (*Zalantzarik gabe*) Berni.

BERNAT- Bai.

CERES- Saria jaunandako. (*Arnaldori*) Oso ondo, Arni.

ARNALDO- (*Axolagabe*) Oso erraza zen.

CAROL- (*Bernati*) Zelan da posible Arnaldok nik baino hobeto ezetutea zure eskue?

BERNAT- Lasai, Carol.

CAROL- Esaiztazu, jakin gura dot eta.

BERNAT- Nahikoa da. Ixo.

CAROL- Ez dot gura.

BERNAT- Histerikoa zara gero!

CAROL- Etxera joan gura dot.

FORURIA- (*Sofatik altxatzen da*) Gorroto ittut.

Gorroto ittut. Gorroto ittut karruak. Karruak umiekin, botilekin, latekin, letxuekin eta janariakin katuntzako, txakurrentzako eta lorontzako. Nazkagarriya. Gorroto ittut supermerkatuak. Esne osua, esne gaingabetua, esne-hautsa, ilarrak, esparraguak, komuneko papera, konpresak eta urdaiazpikua. Eramantzazu nahi dezuna eta ordaindu irteeran. Irteera. Hoixe da ba okerrena. Atera iritsi eta zer topatze ´zu? Deabru tximaluze hoyek, beren begi zorrotzekin eta kia ezpain artian dutela, eta beida-beida gelditzen zaizkizu eta biluztu itten zaituzte eta bortxatu ta barre in. Bai, garbia zealako, garbia, zintzua ta abstemia. Arren, osaba, zu Jaungoikoaren aldamenean zea, eskatuiozu lurretik eamateko guztiyak. Akatu ditzala danak: zigarruak, tximaluzeak eta supermerkatuak. Kanpora fedegabeak! Kanpora degeneratuak! Kanpora paganuak! Gora karitate kristauaren ahizpak!

(*Leher eginda, gela zeharkatzen du Arnaldorekin talka egin arte*)

ARNALDO- (*Heldu egiten dio eta adeitasunez esaten dio*) Lasai, Foru. Etxera joateko ordua da.

FORURIA- Bale. Arrazoi guztiya dezu. (*Arnaldorengan bermatuz eta duintasuna erakutsi nahian*) Sentitze ´et, Milla jauna. Zure millonarioa izugarri berandutzen ari da. Eskuminak eman nire partetik, mesedez. (*Irten egiten da Arnaldori helduta*)

KAPITAINA- (*Bernati*) Agurtu ezazu nire partetik ere.

CAROL- Eta nire partetik be bai.

KAPITAINA- (*Caroli*) Goazen, alaba, hemen ez dugu ezer egiten.

CAROL- Egon apur baten, aita. (*Bernati*) Berni...

BERNAT- Zer?

CAROL- Zure eraztuna. Iruntsi zure eraztun madarikatue. *(Aurpegira botatzen dio)*

*(Bernat makurtu eta mahaian esertzen da, Ceresen ondoan. Eraztunak kapitaina jotzen du, begian)*

KAPITAINA- Zaurituta nago. Nire begia. *(Ceres barrez hasten da)* Barregarria iruditzen zaizu, andrea?

*(Bernat ere barrez hasten da. Ceres eta Bernat besarkada batean biltzen dira)*

KAPITAINA- *(Gaizto, Bernati)* Milla...

*(Itsumustuka, mahai aldera doa. Bernatek eta Ceresek barre egiteari uzten diote)*

Badakizu zer merezi duen zu bezalako lotsagabe batek?

BERNAT- Zer, nire kapitaina?

KAPITAINA- *(Ahotsaren norabidea zuzentzen du Bernati entzutean)* Ziegan sartzea.

*(Ceres eta Bernat altxatu egiten dira aldi berean. Eskutik helduta, ihes egiten dute arrastaka)*

BERNAT- Ziegan, jauna?

KAPITAINA- *(Hitzak azpimarratuz)* Bai, urik gabe, janaririk gabe, argirik gabe, arratoiz betetako zulo nazkagarri batean: begiak jango dizkizute.

*(Kapitaina hizketan ari den bitartean, Ceres eta Bernat ate aldera hurbiltzen dira besarkaturik)*

Eta, orduan, garrasika hasiko zara, negarrez. Eta belaunikaturik barkamena eskatuko diozu nire alabari gaur gauean jasan dituen irain guztiengatik. Eta oihuka errukia eskatuko duzu zure marikoi ahots horrekin.

*(Une horretan, Arnaldoren etxetik, oihu lazgarri bat entzuten da, hurbildu egiten dena pixkanaka. Arnaldo sartzen da. Ero moduan dator eta kandela piztu bat dakar eskuan)*

ARNALDO- *(Oihuari amaiera emanez)* Oooooo! Mixerablea!

BERNAT- Arnaldo...

ARNALDO- Koldar zikin hori!

BERNAT- *(Arnaldorengandik aldenduz)* Zer duzu?

ARNALDO- (*Haserre*) Badakizu nola dagoen nire egongela? Ikusi al duzu? Nire egongela! Auzo honetako politena eta dotoreena, eta orain Casa Antonioko rastrilloa ematen du. Aulkiak elkarren gainean pilatuta, lurra gauzez beteta... Eta hori ez da okerrena!

BERNAT- Ez da okerrena?

ARNALDO- Ez egin inozoarena nire aurrean. Uste nuen lagun on bat neukala. Baina zu ez zara laguna, zu lapur zikina zara. Horixe!

BERNAT- Arnaldo...

ARNALDO- (*Histeriko*) Emazte baten moduan zaindu zaitut. Zugatik, erratza pasatu dut, sukaldean aritu, arropa lisatu. Zu erabateko zerria zarelako. Eta, nola ordaintzen didazu? Nire artelanak lapurtuz.

BERNAT- Larrialdi bat izan da, Arnaldo.

ARNALDO- Etzazu ezer esan. Orain badakit ze iritzi duzun nitaz. "Ez diogu esango Arnaldo gizajoari nobioak garela. Ez da fidagarria. Ez da laguna. Inozoa da eta lapurreta egingo diogu".

BERNAT- Hori ez da egia, Arnaldo, eta ederki asko dakizu.

ARNALDO- (*Garrasika, eta ondoren, histeriko, hasperen egiten du*) Ixo! Zuretzat azken tximua naiz. Badakit. Eta nik estoikoen antzera jasan ditut zure maitaleen istorio patetiko guztiak, orduz ordu, egunsentira arte. Zu bazina bezala mundu honetan sufritzen duen bakararra.

CERES- (*Bernati*) Histeriko jartzen dabil. Ez in kasurik.

ARNALDO- (*Ceresi*) Ceres, niretzat zu hilda zaude. (*Caroli*) Eta zuri gauza bat esan nahi dizut zuen konpromisoari buruz: elkar merezi duzue biok, lotsagabe bat eta txoriburu bat.

BERNAT- (*Arnaldori, Carolengatik*) Utzi bakean.

ARNALDO- Lasai. Nazka ematen dit. Berni, itzulizkidazu nire gauzak. Zu hor geratu, marrazoarekin eta panpinarekin. Berni, itzuli nire gauza guztiak edo udaltzaingoari deituko diot.

BERNAT- Ez esan txorakeririk.

ARNALDO- (*Ez-entzunarena eginez*) Non dago opalinazko nire lanpara zuri zoragarria?

BERNAT- Pasilloan.

ARNALDO- Non dago nire chaise longue paregabea, zisne-lepoz inguratua?

BERNAT- Estudioan.

ARNALDO- Izugarria. Eta nire loreontzi urrez bainatua?

BERNAT- Hemen dago.

ARNALDO- Lurrean. *(Loreontzia hartzen du aulki azpitik)* Loreak ere lapurtu dizkidazu-ta. Oraintxe etorriko naiz nire gauzak hartzera. *(Ate aldera doa ahalik eta duintasun handienarekin)* Bernat Milla, hemen amaitzen da gure harremana. Ez zaitut ikusi nahi sekula.

*(Gabardina ikusten duenean, hartzera doa. Baina gabardina Buda estaltzen ari denez, hau lurrera erortzen da. Ez da ezertxo ere entzuten. Arnaldok, mantso-mantso, Budaren hondakinak aztertzen ditu. Azkenean, hizketan hasten da, lasai, mehatxuz beteriko ahotsarekin)*

Birrindu egingo zaitut.

BERNAT- Lasai, Arni, mesedez.

ARNALDO- *(Eskultura aldera abiatzen da eta Carolen aurretik pasatzean, haren eskuetan uzten du loreontzia, zakar)* Txiki-txiki eginda utziko zaitut, Buda hau bezala. Hori da gizalegea. *(Eskulturaren orratzetako bat hartzen du)* Txiki-txiki eginda.

*(Esku batekin orratza mugitzen du, ezpata bat balitz bezala, eta bestearekin kandelari eusten dio)*

BERNAT- Geldi, Arnaldo. Burua galdu duzu, ala?

KAPITAINA- *(Arnaldori)* Heldu da zorrak kitatzeko ordua. *(Beste orratza hartzen du)*

*(Arnaldo eta Kapitaina Bernat dagoen aldera hurbiltzen dira)*

BERNAT- *(Atzera eginez)* Nire kapitaina, egon pixka bat. Izan zentzuduna eta ez animatu. Izan gaitezen gizakiak eta ez basapiztiak. *(Arnaldori)* Arnaldo, gure adiskidetasunaren izenean eskatzen dizut. Zu kultua eta klase handikoa izan zara beti. Etzazu orain burua galdu, mesedez.

*(Carolek airera botatzen ditu loreontziko loreak eta arma gisa erabiltzen du. Maltzur, Bernaten bila doa)*

CAROL- Harrapatu, aita. Harrapatu!

BERNAT- *(Ceresi)* Lagundu!

KAPITAINA- Kontuz, alaba. Ez zaitez sartu bataila-eremuan.

ARNALDO- *(Kapitainari)* Ixo, kapitaina. Adi, haren arnasa entzungo dugu.

KAPITAINA- Taktika bikaina. Oso bikaina, bai jauna!

*(BERNAT mahaira igotzen da eta CERESi laguntzen dio igotzen. ARNALDO eta KAPITAINA ezpata-kolpeak ematen dituzte han eta hemen. CAROL*



*Berniren buruaren bila dabil, loreontzia eskuan. JORGE RAGNER agertzen da traje dotorea jantzita. Kontu handiz sartzen da)*

RAGNER- *(Azentu argentinarrez hitz eginez, Jorge Rafael bezala)* Káixo! Miya jáuna?

*(Arnaldok eta kapitainak norabidea aldatzen dute)*

ARNALDO- Hara! Elektrizista madarikatu hori berriro ere.

RAGNER- Mesédez, ez didázu éntzun?

KAPITAINA- Ze arraio nahi du orain? *(Jorge Rafael atetxoan agertzen da)* Konpondu duzu argiaren arazoa?

ARNALDO- Edo ilunpetan edukiko gaituzu gau osoan?

JORGE RAFAEL- Se acabó el quilombo. Matxúra konpónduta dágo. Ya está.

*(Sototik ateratzen da. Ragnerrek Bernaten bila jarraitzen du)*

ARNALDO- Albiste on bat azkenean.

RAGNER- Miya jauna, non sártu zára? Zergatik ez dágo argirik? A! Badákit, bróma bat, ezta?

JORGE RAFAEL- Aizúe, ez-dáukazue eskubidérik nire lepótik barre egitéko nire euskára berezía deláko. Honek ez-dáuka graziárik. *(Haserre)*

RAGNER- *(Autoritario)* Miya jáuna. Etorrí-naiz zúre eskultúrak ikustéra. Besterík-ez.

JORGE RAFAEL- Jesukristóren izenéan.

RAGNER- Jesukristóren izenéan, Miya jáuna!

BERNAT- *(Ceresi)* Bera da. Ragner!

CERES- Etorri da.

*(CAROL, ARNALDO eta KAPITAINA logelara igotzen dira)*

CAROL- Ragner!

ARNALDO- Ragner!

KAPITAINA- Ragner!

BERNAT- Lasai, Ragner jauna. Lehen argia joan da, baina konponduta dago arazoa.

RAGNER- *(Haserre)* Miya jáuna...

CERES- *(Bernati)* Altutxuago berba in. Gorra da.

BERNAT- *(Oihuka)* Lasai, Ragner jauna! Lehen argia joan da, baina konponduta dago arazoa!

JORGE RAFAEL- *(Bernati)* A, orain ulértu dut...

RAGNER- Miya jáuna...

JORGE RAFAEL- Happening bat da

RAGNER- Miya jáuna...

JORGE RAFAEL- Eta nik páрте hartúko dut performánce honétan.

*(Argia bueltatzen da. Baita argia joan denean jarrita zegoen Kubako obertura ere)*

BERNAT- Eskerrik asko, Jainko maitea, eskerrik asko.

*(CAROLEk, ARNALDOK eta KAPITAINAK eskaillerak jaisten dituzte)*

ARNALDO- *(Bernati)* Nik, zu banintz, ez nioke hain bizkor eskertuko.

KAPITAINA- *(Bernati)* Nik ere, zu banintz, ez nioke hain bizkor eskertuko.

CAROL- *(Bernati)* Ezta neuk be, zu banintz.

RAGNER- Miya jáuna. Zergátik ezkutátzen zára?

JORGE RAFAEL- Argiari éman eskérrak, bizítza báita, aldakórra, kaleidoskopio bat, etengábea... Babesa ematen-dío itzálari, argiaren bestaldéari. Eta ni nauzúe háren ordézkari.

FORURIA- Milla jauna, a ze egarriya emate ´un zure limonada horrek...

RAGNER- Miya jáuna, eskultúra guztiak erosiko dizkízut, baina lagúndu aterátzen heméndik.

JORGE RAFAEL- Barkátu, baina hóri ez da níre izéna. Níre izéna da...

*(JORGE RAFAELengana hurbiltzen dira guztiak, mehatxuka, armak eskuan)*

## **TELOIA**